

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALEKO UDALBATZA OSOAK 2016ko
MAIATZAREN 30ean EGINIKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamabosteko maiatzaren hogeita hamarrean, zortziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ezohiko eta premiazko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatzen den bezala, aurretik jakinarazi gabe. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Josu Artetxe Arana

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongietorria eman die osoko bilkurako guztiei.

1.- 2016ko ekainaren 26ko Hauteskunde Orokorretako mahaiak eratzeko presidentek eta kideak izendatzea.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- 2016ko maiatzaren 3an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zela 184/2016 Errege Dekretua, Diputatuen Kongresuaren eta Senatuaren desegiteari buruzkoa eta 2016ko ekainaren 26ko hauteskundeetarako deialdia egiteari buruzkoa.

IKUSI DA.- Ekainaren 19ko 5/1988 Hauteskunde Araubidearen Lege Organikoaren 26. artikulua ezartzen du hauteskunde-mahaiak eratzeko Udalen eskumena dela, eta eremuko hauteskunde-batzordeek gainbegiratu behar dutela hori.

IKUSI DA.- Hauteskunde Batzorde Nagusiak aipatutako artikulua interpretazio-dotrina sendoa ezarri du; beraz, adierazten dugu zozketa egiteko eskumena Udalbatza Osoarena besterik ez dela.

AINTZAT HARTU DA.- Mahai bakoitzeko burua eta kideak zozketa publikoaren bidez hautatzen dira, dagokion mahaiko hautesleen zerrendan ageri diren pertsona guztien artean.

IKUSI DA.- Arestian azaldutakoa. Bestalde, aipatutako zozketa egin da.

Udalbatza osoak, aho batez, hau **EBATZI DU:**

LEHENENGOA.- Mahaiko buru eta kide (titular eta ordezeko) izendatzea I. eranskinean zerrendatutakoak.

BIGARRENA.- Izendapenaren berri ematea interesdunei, hauteskunde-egutegiaren arabera, 2016ko maiatzaren 28tik ekainaren 4ra bitartean. Jakinarazpenarekin batera, mahaikideei, euren funtzioei buruzko argibideen eskuliburua emango zaie, Hauteskunde Batzorde Nagusiak gainbegiratutakoa.

Hauteskunde-mahaietako presidente eta kide izendatutakoek zazpi eguneko epea izango dute (maiatzaren 29tik ekainaren 11ra arte) tokiko hauteskunde-batzordearen aurrean kargua hartzea oztopatzen dieten kausa arrazoitzeko eta dokumentatzeko.

2.- Aiarako Hiri Antolamendurako Plan Orokorra: Aurrerakinari aurkeztutako aukerak eta iradokizunak ebaztea, eta irizpideak eta irtenbideak zehaztea.

IKUSI DA.- 2015eko maiatzaren 22an, ALHAOn (61. zk.) jendaurrean izan zen bi hilez, iragarkia argitaratu zenetik, Aiarako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) Aurrerakina, interesdunek egokitzat jotako iradokizunak eta erreklamazioak egin zitzaizten.

Dokumentu hori kontsultatzeko eta horren inguruan informatzeko interesdun asko izan direnez, Udaltzat epe hori 2015eko uztailaren 31ra arte luzeatzea erabaki zuen.

IKUSI DA.- Aurrerakin hori Arabako Foru Aldundiko zerbitzu eskudunei, Aiarako administrazio-batzordeei eta udal mugakideei aurkeztu zitzaizkien, horren berri izan zezaten eta zegozkion ondorioak izan zitzaizkien.

IKUSI DA.- Aipatutako epe horretan 163 iradokizun edo alternatiba aurkeztu zaizkio dokumentu horri. Horien berri eman du HAPO idazten ari den taldeak.

AINTZAT HARTU DA.- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.4 artikulua ezartzen du, HAPOren aurrerakinaren jendaurreko erakustaldiaren eta herritarren eta erakundearen parte-hartzearen emaitzak aztertuta, Udaltzat plan orokorra idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak zehaztuko dituela.

AINTZAT HARTU DA.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena Informazio Batzordearen irizpena, 2016ko maiatzaren 10ekoa.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 28. artikulua dioenez: Montserrat Angulo andrea (EAJ-PNV) abstenitu egin da 29.-39. iradokizunak eztabaidatzean eta bozkatzean; Esteban Hernando jauna (BILDU), abstenitu egin da 73.-78. eta 79. iradokizunak eztabaidatzean eta bozkatzean; Gentza Alamillo jauna (EAJ-PNV), abstenitu egin da 53. iradokizuna eztabaidatzean eta bozkatzean, eta José Antonio Bartolomé jauna (EAJ-PNV), abstenitu egin da 15. eta 42. iradokizunak eztabaidatzean eta bozkatzean.

Udaltzat, aurkeztutako iradokizun eta alternatiba guztiak eztabaidatu eta bozkatu ondoren, honako **ERABAKI** hau hartu du:

Lehena.- Aiarako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren Aurrerakina jendaurrean jartzean aurkeztutako iradokizunak eta alternatibak ebaztea, honela:

UDALERRIA

SU-000 Aiara. Sare elektrikoko afekzioak / Espainiako sare elektrikoa

Honako linea hauek eta horien afekzioak aintzat hartzeko eskatu da, 1955/2000 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera:

- Energia elektrikoa garraiatzeko aire-linea, 400kV Barcina Gueñes.
- Energia elektrikoa garraioatzeko aire-linea, 200kV Aiara T Aiara 1.

Udalbatzak, aho batez, **onetsi du** iradokizuna txosten teknikoko baldintzetan, eta, beraz, HAPOn honako aldaketa hauek egingo dira:

1. Sareen afekzio-distantziak txertatzea lurzoru urbanizaezinean –LUE– eta lurzoru urbanizagarrian –LU– (planoak eta hirigintza-arauak, planoetan egon ez arren). Espainiako Sare Elektrikokoak ez ezik, Iberdrolakoak ere bai.

2. Gai horri buruzko aipamen laburra egitea justifikatzeko memorian.

SU-001 TM / Udal Mugartea / Gaztela eta Leongo Batzarra

SU-002 TM / Udal Mugartea / Villalba de Losako Batzarra

SU-003 TM / Udal Mugartea / Tesa de Losako Batzarra

SU-004 TM / Udal Mugartea / Lastras de Tezako bizilagunen Batzarra

SU-005 TM / Udal Mugartea / Villacineko bizilagunen Batzarra

SU-006 TM / Udal Mugartea / Valle de Losako Udala

SU-007 TM / Udal Mugartea / Gaztela eta Leongo Batzarra

001-007 iradokizunak oso antzekoak dira, eta Aiara eta Losako Haraneko udal-mugardeen mugaren zuzenketa bat eskatzen dute, hortaz, Araba eta Burgos probintzienak. Honako informazio hau eskaini dute: 1964ko martxoaren 25eko eta apirilaren 23ko bileren aktak, 1964ko abuztuaren 6ko mugaketa akta (dagokion landa-koadernoarekin), eta mugarrien koordinatuen bi zerrenda (ED50en eta ETRS89n), Informazio Geografikoaren Nazioko Zentroak (CNIG) 2013ko maiatzaren 23an idatzitako txostenetik ateratakoak.

Udalbatzak guztiak bozkatu ditu eta, aho batez, **baztertu** ditu txosten teknikoko iradokizunak; izan ere, HAPOk ez du eskumenik udal-mugarreak finkatzeko ez kasu honetan ezta probintzia-mailan ere. HAPOn azalpen tekniko bat gehitu da, justifikatzeko memorian.

SU-008 Menagarai-Beotegi / Eraikitze elementuak malgutzea / A. Z.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** txosten teknikoko iradokizuna; betiere, guztia zehazten denean zer-nolako tipologia eraikitzailetan hartzen diren eta zeinetan ez. Horrenbestez, HAPOn honako aldaketa hauek egingo dira:

1. Baldintza estetikoaren etorkizuneko ordenantza arautuko duen artikulua gehitu da, eta aintzat hartu beharko du berritzeko aukera eta arau subsidiarioen aldi baterako erregimena, ordenantza onetsi arte.
2. Araudia aplikatzeko irizpide orokorretan gehitzea berritzeko aukera eraikitzaile hau, Arabako Foru Aldundiaren araudiarekin bateragarri den heinean.

KATALOGOA/JJ

SU-009 Kexaa. Villodas 7 katalogotik kanpo uztea / M. B.

Casa Villodas 7 etxebizitza katalogotik kanpo uzteko eskatu du, Kexaako 5 poligonoko 1934 lursailean dagoena (KE28). Jabeak eraikinak katalogotik ateratzeko eskatu du, aurreko arau subsidiarioetan tokiko babesarekin katalogatuta zegoen.

Udalbatzak, aho batez, **deskatalogazioa baztertu du**. Horrenbestez, HAPOn banakako fitxetan jarriko dira, modu argi eta errazean, esku-hartze mota eta 317/2002 Dekretuan jasotako babes-maila, ekintza posibleak ezagutarazteko.

SU-010 Kexaa 4 zenbakia. KE-26 La Barrera baserria deskatalogatzea/ C.D. R.

La Barrera 4 etxebizitza katalogotik kanpo uzteko eskatu du, Kexaako 115 poligonoko 4. lursailean dagoena (KE26). Jabeak eraikinak katalogotik ateratzeko eskatu du, aurreko arau subsidiarioetan tokiko babesarekin katalogatuta zegoen. Bere argudioa da etorkizunean birgaitzearen bideragarritasuna arriskuan jar daitekeela.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**. Horrenbestez, HAPOn banakako fitxetan jarriko dira, modu argi eta errezean, esku-hartze mota eta 317/2002 Dekretuan jasotako babes-maila, ekintza posibleak ezagutarazteko.

SU-011 Kexaa. KE-28, Villodas 5 deskatalogatzea / C. D. R.

Villodas 5 etxebizitza katalogotik kanpo uzteko eskatu du, Kexaako 5 poligonoko 1913 lursailean dagoena (KE29). Jabeak eraikina katalogotik ateratzeko eskatu du, aurreko arau subsidiarioetan tokiko babesarekin katalogatuta zegoen. Bere argudioa da etorkizunean birgaitzearen bideragarritasuna arriskuan jar daitekeela.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna baztertu du. Horrenbestez, HAPOn banakako fitxetan jarriko dira, modu argi eta errezean, esku-hartze mota eta 317/2002 Dekretuan jasotako babes-maila, ekintza posibleak ezagutarazteko.

Malgutasunaren fitxan zehaztu behar dira esku hartzeko irizpideak, egoera txarrean dagoelako.

SU-012 Kexaa. KE-11 katalogoa Kanpandorrea/T. Q. I.

Eskatu du jabetza akatsa zuzentzeko eta "domingotarren komentua" jartzen duen tokian "jabetza pribatua" jartzeko, erregistroko eskrituren bitartez arrazoituta. Fitxa (KE11), 6 poligonoa, 198 lursaila, Kexaan.

Udalbatzak, aho batez, **erabaki du iradokizuna ez ebaztea**, udalak ebatzi ezin duen gai bat izateagatik. Horrenbestez, HAPOn lursail horren jabetza zehaztugabea dela adieraziko da.

SU-029.2 Etxegoien. Eraikina katalogatzea / J. K. M. L. / Ebazpen proposamena

Etxegoieneko 5 poligonoan dagoen 723 zenbakiko lursailean dagoen eraikina katalogatzea eta mantentze-lanak aintzat hartzea.

Udalbatzak aho batez **onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn honako aldaketa hauek egingo dira:

- Fitxa katalogoan sartzea, zehazki Etxegoien Kontzejuan. Halaber, eraikin hau tokiko babes-mailan sartuko da eta esku-hartze mota, gutxienez, finkatzekoa izango da, 317/2002 Dekretuak dioenari jarraiki.

- Erreferentzia aldatzea presuntzio arkeologikora eta San Miguel ermitara eramatea.

SU-013 Menoio. Barrutxi auzoko 17 zenbakia. ME-16 deskatalogatzea/A. V. S.

SU-014 Menoio. Barrutxi auzoko 17 zenbakia / M^a M.V. S.

Menoioko 5 poligonoko 1937 lursaileko B azpilursailean dagoen 1 (SU13) eta 2 (SU14) eraikinak deskatalogatzeko eskaera egin da (ME16 eta ME17 katalogo fitxak). Berrizatzearen solairu berria hormigoiarekin egin nahi dute, ez egurrarekin. Ondare Sailari eskatu zaio txostena.

Udalbatzak aho batez **baztertu** du iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn honako aldaketa hauek egingo dira:

Banakako fitxetan, modu argiagoan eta errazagoan jartzea esku-hartze mota eta babes-maila, 317/2002 Dekretuan jasotakoak, ekintza posibleak ezagutarazteko helburuarekin. ME16 fitxan higiezinaren helbidea aldatzea (18 zenbakia da, ez 17). ME17 fitxan adieraztea eraikin nagusia babestuko dela, baina ez ondoko eraikina.

Zutabeen, habeen eta ikusten diren tximelgen babesza zehaztea, eta solairuaren material aldaketa onestea.

SU-015 Arespalditza Plazako eraikina deskatalogatzea / Arespalditzako Administrazio Batzarra

Arespalditzako 3 poligonoko 237 zenbakiko lursailean dagoen eraikina deskatalogatzea, bere estalkia berritzeko asmoarekin. (AR44) fitxa.

Udalbatzak 7 aldeko botorekin (5 EAJ-PNV, 2 AB) eta 3 abstentzioarekin **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, deskatalogazioa onetsi da, baina estalkia berritzea plangintzaren arabera erabakiko da. HAPOk zehaztuko ditu antolamendu-planak xehetasunez, aipatutako eraikina plangintzarekin bat ez badator.

SU-016 Arespalditza. AR-08 deskatalogatzea / J.O. E.

Arespalditzako 3 poligonoko 582 lursailean dagoen eraikina deskatalogatzeko eskaera (AR08).

Udalbatzak, aho batez, **deskatalogazioa baztertu du**. Horrenbestez, HAPOn banakako fitxetan jarriko dira, modu argi eta errazean, esku-hartze mota eta 317/2002 Dekretuan jasotako babes-maila, ekintza posibleak ezagutarazteko.

SU-017 Arespalditza Ugalde 7 eraikina katalogoan sartzea / M. F. B.

Ugalde auzoko 7 zenbakian dauden baserria eta borda katalogoan sartzea (Arespalditzako 4 poligonoa, 418 lursaila), udaleko katalogazio-mailarekin. Arabako Foru Aldundiko Ondare Sailari eskatu zaio katalogoan sartzea, eta erakunde horrek igorritako aldeko txostena erantsi du.

Udalbatzak aho batez **baztertu du katalogazioa**, txosten teknikoak dioenaren aurka.

SU-018 Arespalditza AR-27, R28 eta 33 deskatalogatzea / I. J.V. O.

AR33 (pz. 168) eta AR27 (pz. 2348) bere jabetzakoak, eta AR28 (pz. 2346), hirugarren baten jabetzakoak, deskatalogatzea, esparru horretatik kanpo dauden lau eraikin eraikitzeke. Baieztatu du AR33 eta AR27 eraikinen zimenduak ez direla egokiak eta AR27 eraikinari etxebizitzak eraikitzeke erabilera ematea oso garestia da. 4 eraikin multzo sortzea, dauden hiru horien orde.

Udalbatzak aho batez **AR28, AR27 eta AR33 eraikinen deskatalogazioa baztertu du**, baina handitzea erraztuko dute txosten teknikoaren baldintzekin bat etorritik. Horrenbestez, HAPOn aipatutako zonaldearen antolamendu zehatza onesten duen dokumentua jasoko da, hartutako erabakiaren arabera ebatziz. AR27n eta AR33n handitzeak baimentzea katalogazioa mantenduz, egungo hormartea eskasa baita.

SU-019 Menagarai Beotegi. MB-91 katalogatutako eraikina zati batean botatzea / J. M.L.V.

MB91 eraikin katalogatuaren aurrealdea botatzeko baimena eskatu du, Beotegiko 2 poligonoko 723 lursailean dagoena.

Udalbatzak aho batez **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn honako aldaketa hauek egingo dira:

Katalogoaren fitxari dagozkion aldaketak jasotzea. Multzo osoa katalogatuko da, baita itsatsitako eraikina ere. Baina fitxan zehaztu da aurrealde nagusiaren alineazio berria eraikin nagusiarekin bat etorri behar dela.

Lurzoru urbanizaezina

SU-20 Landa-nukleoaren Araudia TXOSTEN OROKORRA / J.A. M.

HAPOn Arauen 6.1.3 atalari dagokionez, landa-nukleoko aukerei erreferentzia egiten diena, 3. aukera nahiago duela adierazi du: soilik Zerrabe eta Jauregi.

Udalbatzak aho batez 1. aukera hartzea erabaki du, txosten teknikoan planteatutakoa. Horrenbestez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

SU021 Llanteno. Landa-nukleoa figura LUE / A. P. V./

Llantenon, LUEn landa-nukleoaren itxura mantentzeko eskatu du, 2 poligonoko 2248 lursailean eraiki ahal izateko. Halaber, proposatu du landa-nukleoan dauden eraikinen ondoko lursailetan eraikitzeko aukera.

Udalbatzak aho batez **zati batean onetsi du** iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzen arabera. Horrenbestez, HAPOn jasoko da Llantenoko 2 poligonoko 2248 lursaila, landa-nukleo gisa hogeita bost etxebizitzaren muga aintzat hartuta; eta kasu horretan, Inortza eta Pizparrutxi nukleoak desberdinduko dira; modu horretara, ez dute gaindituko edukiera.

SU022 SNU. Zuhatza / Etxebizitzaren banaketa LUE / L. Z. eta M^a D. M.

2 poligonoko 650 eta 719 lursailean urbanizatu ezin daitezkeen lurretan dauden eraikinak banatzeko aukera eskatu du.

Udalbatzak aho batez **zati batean onetsi du** iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzen arabera, eta, bereziki, nukleoa eratu dadin saihestuz. Hasierako onespeneraren fasean zehaztuko da.

SU023 SNU. MenagaraiBeotegi/ Birgaitzea LUEn / A. Z. O.

Udalbatzak, txosten teknikoak diogenaren aurka, aho batez erabaki du iradokizun **hau ez ebatzea**; izan ere, gai hau arautzeko fasean aztertu behar da.

SU024 SNU. Zuhatza / Etxebizitzaren banaketa LUEn / M. D. M. Y.

Udalbatzak, txosten teknikoaren irizpideari jarraituz, aho batez erabaki du iradokizun **hau ez ebatzea**, ez baita lursaila zehaztu.

SU025 SNU. MenagaraiBeotegi/ Ibaguen auzoko etxe baten banaketa / M. S.

Udalbatzak, txosten teknikoaren irizpideari jarraituz, aho batez erabaki du **iradokizun hau ez ebatzea**, ez baita lursaila zehaztu.

SU026 SNU. Izoria / Erabilera-aldaketa LUEn / A. U. A.

Udalbatzak, txosten teknikoaren irizpidea jarraituz, aho batez iradokizuna **baztertu du**, katalogatuta ez dagoelako, eta ez dagoelako ohiko asentatzean. Nekazaritza-jarduerari lotu dakioke etxebizitza.

SU027 SNU. Erbi / Nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak etxebizitza bihurtzea / N. de D.

Udalbatzak, txosten teknikoaren irizpidea jarraituz, aho batez iradokizuna **baztertu du**, katalogatuta ez dagoelako, eta ez dagoelako ohiko asentatzean. Nekazaritza-jarduerari lotu dakiokete etxebizitza.

SU028 SNU. Izoria / Uholde arriskua duen zonaldean eraikitzea LUE / N. L. I.

Udalbatzak, txosten teknikoaren irizpidea jarraituz, aho batez iradokizuna **baztertu du**.

ARESPALDITZA

SU029.1 Arespalditza Guziesko auzoan EU banaketa/ J.K. M. L.

Arespalditzako Guziesko auzoan unitate txikiagotan banatzea.

Udalbatzak aho batez txosten tekniko 3. **aukera hautatu du**; antolamendu-esparrua mugatzean datza. Halaber, HAPOn zehaztea antolamendu zehaztua, Plan Bereziaren erdiko irtenbidea saihesteko. Hainbat egikaritze-unitateren bitartez egingo da. Unitate horiek esparruko egoera heterogeneoari erantzuna eman beharko diote, HAPOn lursailen egoerak aztertuz.

SU030 Arespalditza Guziesko auzoa, kanpoan uztea 2307, 2306, 52 eta 76 / E. R. eta beste batzuk

Ordura arte betetako hirigintza-betebeharrak adierazi dituzte. Hori dela eta, Guziesko auzotik ateratzeko eskatu dute Arespalditzako 5 poligonoko 2307, 2306, 52 eta 76 lursailak. Edo, bestela, unitate independente batean jartzeko eskatu dute.

Udalbatzak aho batez txosten tekniko 3. **aukera hautatu du**; antolamendu-esparrua mugatzean datza. Halaber, HAPOn zehaztea antolamendu zehaztua, Plan Bereziaren erdiko izapidea saihesteko. Hainbat egikaritze-unitateren bitartez egingo da. Unitate horiek esparruko egoera heterogeneoari erantzuna eman beharko diote, HAPOn lursailen egoerak aztertuz. Halaber, Guziesko EUko 2307, 2306, 52 eta 76 lursailak kanpoan uzteko iradokizuna **baztertu dute**.

SU031 Arespalditza Guziesko auzoko 47 lursaila kanpoan uztea. Eta 51 eta 53 lursailei buruzko informazioa / J. I. B.

Guziesko auzoko EU4 osatzen duen 47 lursaila Arespalditzako 5 poligonotik ateratzeko eskaera egin du. Era berean, Internet bidez eginiko aurretiko ekarpenean eskatu du informazioa HAPOn etorkizuneko zehaztapenei buruzkoa, Arespalditzako 5 poligonoko 51 eta 53 lursailentarako.

Udalbatzak aho batez txosten tekniko 3. **aukera hautatu du**; antolamendu-esparrua mugatzean datza. Halaber, HAPOn zehaztea antolamendu zehaztua, Plan Bereziaren erdiko izapidea saihesteko. Hainbat egikaritze-unitateren bitartez egingo da. Unitate horiek esparruko egoera heterogeneoari erantzuna eman beharko diote, HAPOn lursailen egoerak aztertuz. Halaber, Guziesko EUko 47 lursaila kanpoan uzteko iradokizuna **baztertu dute**.

SU032 Arespalditza Guziesko auzoa. 89 lursaila kanpoan uztea / J. J. A. G.

SU033 Arespalditza Guziesko auzoa. EU banaketa / J. J. A. G.

Adierazi du Arespalditzako Guziesko auzoko EU4ko 5 poligonoko 89 lursailaren jabea dela, eta ordura arte bete dituen hirigintzako betebeharrak zehaztu du; baita azoka-lekuan ingurune berde bat dagoela ere. Egikaritze-unitate txikiagotan banatzeko eskaera egin du.

Udalbatzak aho batez txosten tekniko 3. **aukera hautatu du**; antolamendu-esparrua mugatzean datza. Halaber, HAPOn zehaztea antolamendu zehaztua, Plan Bereziaren erdiko izapidea saihesteko.

Hainbat egikaritze-unitateren bitartez egingo da. Unitate horiek esparruko egoera heterogeneoari erantzuna eman beharko diote, HAPOn lursailen egoerak aztertuz. Halaber, Guziesko EUko 89 lursaila kanpoan uzteko iradokizuna **baztertu** dute.

SU034 Arespalditza Guziesko auzoa, EU banaketa / I.J.V. O.

45 lursailaren zerbitzuak eta azalera zehaztu ditu, eta bertan eraikitzeko interesa adierazi du. Halaber, PERItik ezabatze eskara egin du, eta banakako eraikinak baimentzeko eskatu du.

Udalbatzak aho batez txosten teknikoko **3. aukera hautatu du**; antolamendu-esparrua mugatzean datza. Halaber, HAPOn zehaztea antolamendu zehaztua, Plan Bereziaren erdiko izapidea saihesteko. Hainbat egikaritze-unitateren bitartez egingo da. Unitate horiek esparruko egoera heterogeneoari erantzuna eman beharko diote, HAPOn lursailen egoerak aztertuz. Halaber, Guziesko EUko 45 lursaila kanpoan uzteko iradokizuna baztertu dute.

SU035 Arespalditza Guziesko auzoa. PERIren aurkaritza, 2360 lursaila / J. J. U. B.

2360 lursailaren zerbitzuak zehaztu ditu, eta ordura arte bete dituen hirigintzako betebeharrak adierazi ditu. Halaber, PERIko biribilgunearen aurka dagoela esan du, eta plan horren aurka dagoela adierazi du.

Udalbatzak aho batez txosten teknikoko **3. aukera hautatu du**; antolamendu-esparrua mugatzean datza. Halaber, HAPOn zehaztea antolamendu zehaztua, Plan Bereziaren erdiko izapidea saihesteko. Hainbat egikaritze-unitateren bitartez egingo da. Unitate horiek esparruko egoera heterogeneoari erantzuna eman beharko diote, HAPOn lursailen egoerak aztertuz. Halaber, Guziesko EUko 2360 lursaila kanpoan uzteko iradokizuna **baztertu** dute.

SU036 Arespalditza Guziesko auzoa. PERIren aurkaritza, 2359 lursaila / S.L. U.

2359 lursailaren zerbitzuak zehaztu ditu, eta ordura arte bete dituen hirigintzako betebeharrak adierazi ditu. Halaber, PERIko biribilgunearen aurka dagoela esan du, eta plan horren aurka dagoela adierazi du.

Udalbatzak aho batez txosten teknikoko **3. aukera hautatu du**; antolamendu-esparrua mugatzean datza. Halaber, HAPOn zehaztea antolamendu zehaztua, Plan Bereziaren erdiko izapidea saihesteko. Hainbat egikaritze-unitateren bitartez egingo da. Unitate horiek esparruko egoera heterogeneoari erantzuna eman beharko diote, HAPOn lursailen egoerak aztertuz. Halaber, Guziesko EUko 2359 lursaila kanpoan uzteko iradokizuna **baztertu** dute.

SU037 Arespalditza Guziesko auzoa. PERIren informazioa / V.R. de L.

Udalbatzak aho batez, eta txosten teknikoaren irizpideari jarraituz, **ez du ebatzi**, informazio-eskaera delako.

SU038 Arespalditza Guziesko auzoa. Informazioa / J. A. F.

Udalbatzak aho batez, eta txosten teknikoaren irizpideari jarraituz, **ez du ebatzi**, informazio-eskaera delako.

SU039 Arespalditza Guziesko auzoa. 87 lursailaren bereizketa/ Asesoría Comercial Sector Eléctrico SL

Arespalditzako Guziesko auzoko 5 poligonoko 87 lursailaren bereizketa aintzat hartzeko eskatu du, eta arau subsidiarioetan ageri den sailkapena mantentzeko (bizitzeko hiri-lurra).

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna txosten teknikoaren baldintzen arabera, bi lursailak aintzat hartuz, katastroan islatzen diren unean.

SU040 Arespalditza Sagasti 5. Ibilbidean lanak egiteko dokumentuak eskatu ditu / M.A. A.

Aurreko eta ondorengo sareei eta afekzioei buruzko dokumentazioa eskatu du, A624 lursailaren obrari buruzkoa. Arespalditzako 3 poligonoko 222 lursailean nola eragiten duen ikusi nahi du.

Udalbatzak aho batez, eta txosten teknikoaren irizpideari jarraituz, **ez du ebatzi**, informazio-eskaera delako.

SU041 Arespalditza La Llana auzoa. Ereku publikoak mantentzea / A.M.A.

Arespalditzako La Llana auzoko eremu publikoen mantentze-lanak hobetzeko eskaera egin du, bereziki haur-jokoak dauden tokia, Izoriarako bidea eta garbiketa.

Udalbatzak aho batez, eta txosten teknikoaren irizpideari jarraituz, **ez du ebatzi**, informazio-eskaera delako.

SU042 Arespalditza Batzarraren lursailaren erabilera-aldaketa / Administrazio Batzarra

Egungo zuzkidurarako erabilera administratiboa erabilera anitzera aldatzeko eskatu du (Arespalditzako 5 poligonoko 84 lursaila).

Udalbatzak, txosten teknikoaren irizpidea jarraituz, aho batez iradokizuna **onetsi du**.

SU043 Arespalditza. / 2 sektorea eta egoitza / ALDAY Ongintzako Fundazioa

043.1 Arespalditza 2. sektorea. Arau subsidiarioen 6. aldaketa mantentzea; Aurrerakinaren tipologiarekin ados ez egotea

2. sektoreari dagokionez, bere desadostasuna adierazi du, Aurrerakinaren baieztapenarekin; hau da, arau subsidiarioen seigarren aldaketa puntualaren proposamena ez da egokitzen Aiarako topografia eta morfologia tradizionalera. Multzotan eraikitzeke Aurrerakinaren proposamenak izaera loteslea ez izatea edo baztertzeko iradoki du. Bestetik, beste garapen batzuk aurkeztu ditu, hala nola seigarren aldaketan proposatutako eraikuntza jarraia, izaera linealekoa; iragazkortasun gehiago edukitzea ere gomendatu du. Bere ustez, HAPOk ez ditu tipologiak inposatu behar; bere funtzioa da proposatutako antolamenduak honako hauek bermatzea: lagapenak eta estandarrak betetzea, eta aitortutako aprobetxamendua gauzatzea. Adierazi du arau subsidiarioen 6. aldaketa Udalak onetsitako hitzarmen batetik datorrela. Horrenbestez, aldaketa hau HAPOn jasotzeko eskatu du.

Udalbatzak aho batez txosten teknikoko proposamenetatik **1. aukera hautatu du**: eraikuntza jarraiak egitea, horrela, sektoreko eraikigarritasuna multzo laminar batean bihurtuko da, kurba jarrai bat eginez.

043.2 Arespalditza Nekazaritza eta abeltzaintzako erabileratik ateratzea

Arespalditzaren izaera desberdina adierazi dute, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerei lotuta beste landa-nukleo batzuei dagokienez; hori dela eta, ondorioak beste nukleoetan bezain zorrotz ez aplikatzeko eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrela, HAPOn gehituko da nukleoen izaera desberdina eta islatu egin beharko da aplikatu beharreko araudian.

043.3 Arespalditza Laguntza-ekipamendua bereziki aitortzea

Fundazioaren laguntza-ekipamendua aitortzeko eskatu du, eta antolamendu zehaztuan islatzea; halaber, eskatu du erabileren bateragarritasun zabalago bat (fundazioaren helburuaren baitan), eta aprobetxamendu handiago bat baimentzea, etorkizuneko hobekuntzetarako, zabalkuntzetarako edo eraikin berrietarako, laguntza-jarduera garatzeko.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrela, HAPOn zehatz-mehatz aztertuko da 137 A, B, C eta D lursailen antolamendua.

043.4 Arespalditza Egoitza Arau subsidiarioen 5. aldaketa puntuala mantentzea.

137b, c eta d lursailak Arespalditzako LUra gehitzeko eskatu du, ekipamenduaren sailkapen zehatz batekin, baita arau subsidiarioen 5. aldaketa puntualean jasotako gainontzeko parametroak ere, HAPOk martxan jartzeko eta zaharren egoitza berria eraikitzeko izapideetan eskua sartu ez dezan.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrela, HAPOk zehatz-mehatz aztertu du 137 A, B, C eta D lursailen antolamendua.

043.5 Arespalditza 1. sektorea mantentzea

Bere ustez ez da deskalifikatu behar Arespalditzako 1. sektorea; izan ere, Arespalditzako iparraldean jardutea baimentzen du, bideak eta kaleak aldatuz, eta parke-plaza bat eraikitzeko aukera ematen du, erdigunea hobetzeko. Bideragarritasun ekonomikoaren azterketa bat egin nahi du, aprobetxamenduak eta mugak egokitzeko, hirigintzako kargak jasangarriak izan daitezen eta sektorea errentagarria izan dadin.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrela, HAPOk lur urbanizagarri gisa mantenduko ditu 292b, 245, 295 lursailak HAPOn. Halaber, beraien antolamendu zehatza onetsitako PParen garapenera igorriko du, eta baldintza bat gehituko zaio. Beharrezkoa den kasuetan, birpartzelatzea aldatuko da.

043.6 Arespalditza Saneamenduaren asetzea

Azaldu du Arespalditzako saneamendu-sarea aseta dagoela. Eskatu du HAPOko ordenantzetan sare hori Murgako sarearekin konektatzeko beharra zehaztea, administrazio publikoaren kontura. Eta promozio berriek ekarpenak egin behar dituztenean, nola kalkulatzen den adierazi beharko da HAPOn eta ordenantzetan.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOk 2. sektorearen konexioa aurreikusi beharko du Markijanara, eta konexio hori amaituta dagoela esan arte, arazketa-betebeharren zenbaketa zehaztu beharko du.

SU044 Arespalditza / 2. sektorea/ Alday Fundazioa

Aintzat hartzeko bi dokumentu aurkeztu ditu:

HAPOa izapidetzen ari den bitartean lizentzien etetearen interpretazioari buruzko memoranduma; HAPOren antolamendu berria 5. eta 6. arau subsidiarioetan aldaketa bezala onesten bada, lizentzien eteteak esparru horietan ez eragitea eskatu du. Arespalditzako 2. sektorearen aldaketaren aurka egindako alegazioak. Bertan eskatzen da proposamenaren aldeko txostena egitea, arau subsidiarioen aldaketa puntualerako, 2 sektorea berriz antolatzeko eta izapide horiekin jarraitu ahal izateko.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzen arabera.

SU045 Arespalditza 1. sektorea, lur urbanizagarri gisa jartzeko / R. S. I.

1. sektorearen sailkapena mantentzeko eskaera egin du, 292b, 245 eta 295 lursailen 2. aukerari dagokiona.

Udalbatzak aho batez erabaki du aurkeztutako **iradokizuna baztertzea**.

SU046 Arespalditza UE1, bidea baztertzea / J. R. I.A.

Bidea Arespalditzako UE1etik baztertzeko eskatu du.

Udalbatzak aho batez **onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn honako aldaketa hauek egingo dira:

- Arespalditza UE1 kentzea, baina aparkalekuaren lagapena uztea 71 lursailerako; lagapen hori antolamendu zehatzaren planoetan islatu beharko da (alineazioak, aldapa...), baita bere AOPeko arau berezietan ere.

- Kalearen zabalera gutxienez 5 metrokoa izatea.

SU047 Arespalditza / J. R. I.A.:

047.1.- UE6 bidea baztertzea

Arespalditzako UE-6 aldatzeko eskaera egin du, bidea baztertuz.

Udalbatzak aho batez **baztertu du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn honako aldaketa hauek egingo dira:

- UEko errepideak mantentzea, baina kanpoan uztea F.1 gisa grafiatutako zonaldea.

047.2.- UE6, 2 familia bakarrekotxebizitza eraikitzea

Soilik bi familia bakarrekotxebizitza eraikitzeko aukera aztertzeko eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, **erabaki du** iradokizuna **baztertzea** txosten teknikoaren arabera. Horrenbestez, HAPOn berriz aztertu beharko du Ueri esleitutako etxebizitza kopurua, eta bertan familia bakarrekotxeedo bi familiakotxebizitzak eraikitzeko aukera.

SU048 Arespalditza Antoj Taberna Ostalaritzako bateragarritasuna / A. M^a G.

Eskatu du “hirugarren mailako bizitoki” gisa izendatzea Arespalditzako 3 poligonoko 255 lursaila. Egindako bileraren arabera, egungo ostalaritzako erabilera egoitza-erabilerekin bateragarria izatea nahi du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna, txosten teknikoaren arabera. Horrenbestez, HAPOn honako lursaila A2 gisa sailkatuko da.

SU049 Arespalditza 5 zenbakiko poligonoko 2350 eta 2351 lursailetakotxe txikia / J. I. O.B.

SU050 Arespalditza 5 zenbakiko poligonoko 2350 eta 2351 lursailetakotxe txikia / J.I.O.B.

Arespalditzako 5. poligonoko 2350 eta 2351 lursailen eraikitzeko eskubideak mantentzeko eskaria egin du, deskribatuta dagoela esanez.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du** txosten teknikoaren baldintzen arabera.

SU-051 Arespalditza, Landeta auzoa, 1 (5. poligonoko 106 lursaila) / J.R. eta S. G.M.:

051.1 Arespalditza, Landeta auzoa 1 (5. poligonoa 106 lursaila); estalkia handitzeko eskaera egin du

Errepidea handitzeagatik sortutako koten desberdintasuna dela-eta (Landeta auzoko 106 lursailarekin alderatuta), estalkia handitzeko eskaria egin du, eta estalkiaren azpiko aprobetxamendua handitzea.

051.2 Arespalditza, Landeta auzoa 1 (5. poligonoko 106d lursaila); erabilera-aldaketa nekazaritzako biltegi

Etxola biltegi gisa erabiltzeko bateragarritasuna eskatu du, oraindik eraikitzeko dagoen 106d azpilursailako animaliak bertan gordetzeko.

Udalbatzak iradokizun guztiak bozkatu ditu eta, aho batez, **baztertu** egin ditu txosten teknikoko baldintzei jarraiki eta Arabako Foru Aldundiko Errepideen Sailaren baimenari dagokiolako.

LUIAONDO

SU052 Luiaondo / Kontserbazio Batzarrak deuseztatzea UE1 / Jabekideen Elkarte

SU053 Luiaondo / Kontserbazio Batzarrak deuseztatzea / G. A.

SU054 Luiaondo / Kontserbazio Batzarrak deuseztatzea / M. H. L.

SU055 Luiaondo / Kontserbazio Batzarrak deuseztatzea / M. H. L.

SU056 Luiaondo / Kontserbazio Batzarrak deuseztatzea / I. A. S.

SU057 Luiaondo / Kontserbazio Batzarrak deuseztatzea / I. G.F.

SU058 Luiaondo / Kontserbazio Batzarrak deuseztatzea / Z. G. F.

Udalbatzak aho batez erabaki du aurkeztutako iradokizunak **ez ebaztea**, txosten teknikoaren baldintzei jarraituz, aurreko arau subsidiarioen kudeaketari buruzkoak direlako.

SU059 Luiaondo / Otazu kalea / E.B.

Otazu kalearen eta berdeguneen egoera txarra.

Udalbatzak aho batez erabaki du aurkeztutako iradokizunak **ez ebaztea**, txosten teknikoaren baldintzei jarraituz, aurreko arau subsidiarioen kudeaketari buruzkoak direlako.

SU060 Luiaondo. Hegoaldeko errepeidea / J.M. E.C.:

060.1 Luiaondo Hegoaldea, 1536 lursaila. Beheko solairuari bizitzeko erabilera ematea.

Etxebizitza berritzeko eskaera egin da, 1536 lursailean dagoen eraikineko beheko solairuan etxebizitza bat eraikitzeko.

Udalbatzak aho batez erabaki du **ez ebaztea**, HAPO idazterakoan erabaki beharreko gai bat delako.

060.2 Luiaondo Hegoaldea, 1001 lursaila. LUE berriz sailkatzea EU mugatuz.

LUn txertatutako jarduera bat mugatzeko eskatu du, Luiaondoko 3. poligonoko 1001 lursaila baitan hartuko duena.

Udalbatzak aho batez erabaki du **aurkeztutako iradokizuna baztertzea**. Eta, horrenbestez, HAPOn A-625 lursailean eraikitzeko lerroa zuzenduko da, Luiaondotik igarotzen denean.

SU061 Luiaondo / Errepeidea / I. A. S.

Luiaondo errepeide nagusia egoera txarrean dago.

Udalbatzak aho batez erabaki du aurkeztutako iradokizuna **ez ebaztea**, txosten teknikoaren baldintzei jarraituz.

SU062 Luiaondo / UE7/ L. eta A. A.

Luiaondoko 3. poligonoko 1675, 1676 eta 1677 lursailen jabe gisa, euren desadostasuna adierazi dute UE7rekin. Beraien ustez bertan eraikitzeko aukerak, ondoko jabearekin adostu eta gero, kudeaketa zailtzen du, eta euren baliabideak erabiliz eraikitzeko asmoei ez die erantzuten. Halaber, bere desadostasuna adierazi du 3. sektoreko etorkizuneko bide berriaren ibilbidearekin; bere ustez, gaur egungo Arau Subsidiarioak trafikoarentzat onak izango dira, baina kaltegarriak bere interesentzat. Gainera, plaza berriaren kokapena 1318 lursailean izatea proposatu dute, lehengo zinemaren parean.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn honako aldaketa hauek egingo dira:

UEren mugak eta zonifikazioa aldatzea:

- LU handitzea; 1677 lursail osoa sartzea. Unitateko 1349 lursaila kanpoan uztea.
- 1346 lursailaren jabetza eskatzea, eta beraren zati bat UEn sartzea.
- Etorkizuneko errepidearen zabalera egokitzea.
- A.6 lursailaren zonakatze-aukera aztertzea (familia bakarrekoa/bi familiakoa), edo A.4 lursailaren zonakatzea malgutzea, tipologia hori onartzeko.

ZUAZA-ZUHATZA

SU063 Zuhatza. / Zuhatzako Administrazio Batzarra:

63.1 Zuhatza. 1. sektorea, 2. aukera

Nekazaritza-jarduerak errespetatzea proposatzen du, LUren garapena mugatuta, tartean egon ez dadin. Aintzat hartu da 1. sektoreko Plan Partziala gehiegizkoa dela; hortaz, desklasifikazio- eta murrizketa-ekintzekiko duten interesa adierazi dute (Aurrerakineko 2. aukera). Halaber, Plan Partzial horren Urbanizatzeko Jarduketa Planaren epeak iraungi direla baieztatu du.

Udalbatzak aho batez HAPOk aurrerakineko proposamenen **1. aukera hautatu du**, eta sustatzailearekin esparruaren murrizketa bat negoziatzeko konpromisoa hartu du. Horrenbestez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

63.2 SNU Zuhatza. Birgaikuntza eta banaketa horizontala

Etxebizitza bihurtu daitezkeen nekazaritza-eraikinen zerrenda bat egitea proposatu du. Eta baserrien eta etxe handien banaketa horizontala egiteko baimena eskatu dute, beraien ustez, modu horretara, hazkunde jasangarria lortuko dute.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOn erabileren malgutasuna jasoko da, urbanizatu ezin daitezkeen lurri buruzko txosten orokorrean jasotakoa.

63.3 Zuhatza. Errekaren afekzioa La Llana hegoaldean

Gehiegizkoa deritzo errekaren erretiroa La Llana hegoaldean (15 m LUE, eta 12 m LU), eta 5 metrora murriztea proposatu du.

Udalbatzak, aho batez, **onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn La Llanako errekaren erretiroa zuzenduko da, 5 metrora, hain zuzen.

63.4 Zuhatza. Kontzeju-etxea mugatzea

Ekipamenduaren mugak lursailaren mugetara egokitzea proposatu du. Lursaila katastroan izapidetzen ari da.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrenbestez, HAPOn, katastroan zuzendu ondoren, ekipamenduaren lursailaren muga egokituko da.

63.5 Zerrabe. Zuhatzako Eskola

Zerrabeko landa-nukleoko mugak aldatzeko aukera eskatu du, jaberren batek hala eskatzen badu, eta, betiere, arauak betetzen baditu.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn aldatuko dira Zerrabeko mugak.

63.6 Zuhatza. La Llana eta Legizimako errepedeak Ibarguenera

Sailkapena egiterakoan aintzat hartzeko eskatu du Zuhatzako eskolaren (Zerrabe auzoan) lehenengo solairuan Batzarraren etxebizitza bat dagoela. Halaber, katalogoaren fitxan, ZU46 jabetza pribatu gisa agertzen da, baina publikoa da.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, eta, ondorioz, HAPOn erabileren bateragarritasuna jasoko da (ekipamendua, etxebizitza) 129 lursailerako dagokion AOParen arau berezian; bestetik, ZU-46 fitxa zuzenduko da, titulartasuna publikoa delako.

63.7 Zuhatza. Erabilera publikoko mendiak.

Planoetan La Llana eta Legizimatik Ibagueñera doazen bideak agertzeko eskaera egin du.

Udalbatzak aho batez **onetsi du** iradokizuna txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, eta, ondorioz, HAPOn lurzoruaren kategorizazioaren planoetan aipatutako errepedeak jasoko dira.

63.8 Zuhatza. Ingurumenaren balioespena

Jakinarazi du Kontzejuak eskatu behar duela bere mendiak Erabilera Publikoko Mendien katalogoan sartzea, eta ondoren HAPOn jasotzea.

Udalbatzak, aho batez, zati batean onetsi du iradokizuna txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, eta, ondorioz, HAPOn jasota geratuko da, aipatutako mendi horiek Erabilera Publikoko Mendien katalogoan jaso ondoren.

63.9 Zuhatza. Ingurumenaren balioespena

Ingurumenaren balioespenerako honako puntu hauek aintzat hartzea eskatu du:

- La Llanako Plan Partziala.
- Errepideko soinuaren afekzioa garapen berrietan. Babes akustiko zonalde berezitat hartzea proposatu du.
- Nekazaritzarako lurren afekzioak 3. aukeran.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **onetsi du** txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, eta, ondorioz, HAPOn jasoko dira 1. sektorea eta errepedearen soinua Ingurumenaren Balioespenean.

SU064 Zuhatza. 1. sektorea mantentzea / Construcciones Basaorte SLM^a L.P.

Zuhatzako 1. bizitegi-sektorearen garapenarengan duten interesa aipatu dute. Aurrerakin 1. aukerarekin ados daudela diote, baina ezarri litezkeen epeak erabat baldintzatuta daude hazkunde ekonomikoarekin. Hori dela eta, epeak egoeretara egokitu behar direla uste dute.

Udalbatzak 1. aukera hautatu du eta, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna; izan ere, epeak eta exekuzioak argiak eta zehatzak izan behar dute.

SU065 Zuhatza / Hazkundera nukleo zentraletik kanpo gertatzearen aurka /P. U.

Udalbatzak 1. aukera hautatu du eta, aho batez, iradokizuna **baztertu du**.

SU122 Zuhatza. Akatsa Jauregibengoren planoan / A.I.P. de A.

Jauregibengo auzoko 2. poligonoko 708 lursailean (Jauregibengo 8) dagoen etxebizitzaren eranskinaren eraikuntza-planoa aldatzeko eskaera egin du.

Udalbatzak, aho batez, **onetsi du** iradokizuna txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, eta, ondorioz, HAPOn Zuhatzako informazio-planoetan erabilerak jasoko dira.

SU066 Zerrabe. 855 lursaila jasotzea, La Torre Okindegia / R. V. M.

Landa-nukleoaren muga handitzeko eskatu du, iparralderantz, Zerrabe auzoko 3. poligonoko 855 lursailerantz, okindegi berri bat jartze aldera.

SU067 Zerrabe. 805 lursaila jasotzea Landa Nukleoan (LN), onetsitako errekurtsoren arabera / Pedro Luengas Robina SU068 Zerrabe 805 lursaila jasotzea LN-n, onetsitako errekurtsoren arabera / Pedro Luengas Robina

Zerrabe auzoko 3. poligonoko 805 lursaila jasotzea landa-nukleoaren mugetan LUEn. Arabako Foru Aldundiak onesten duen errekurtsoa gehitu du.

SU069 Zerrabe. 846A lursaila jasotzea LN-n / G. L. O.

Zerrabe auzoko 3. poligonoko 846A lursaila jasotzea landa-nukleoaren mugetan LUEn. 805 lursailaren egoera berean dagoelako eta beraren errekurtsoa onetsi egin zelako.

SU070 Zerrabe. 849 lursaila jasotzea / E. A. M.

Zerrabe auzoko 3. poligonoko 846A lursaila jasotzea landa-nukleoaren mugetan LUEn. 805 lursailaren egoera berean dagoelako eta beraren errekurtsoa onetsi egin zelako.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki. Horrenbestez, HAPOn honako aldaketa hauek egingo dira:

- Zerrabeko plano aldaketa eta memorian erreferentzia egitea gai horiei.
- Zerrabeko mugak aldatzea.
- Irizpide hauek arrazoitzeko memorian jasotzea.
- HAPOn landa-nukleoa antolatzea zehatz-mehatz.

IZORIA

SU-071 Izoria. Errepideak eta hautabideak / Izoriako Administrazio Batzarra:

071.1 Izoria. Hainbat errepide zabaltearen aurka

- Izoriako 5. poligonoko 207 (maisuaeren etxea), 206 eta 270 lursailen mugakide diren errepideak ez zabalteko eskatu dute. Beraien ustez lursail horien pareko tarte hori mantendu egin behar da, baita egungo aldapa ere. Maisuaeren lehengo etxea berritzeko asmoa adierazi dute.
- Mendibilera doan errepidearen zabalera mantentzeko eskatu dute.
- Aretxara doan errepidearen zabalera mantentzeko eskatu dute, jada eraikita dauden lursailetan.
- Hazkunde-eremu berriaren ekialdean eta mendebaldean dagoen errepidea zabaltearen aurka daude (UE 1).
- Norabide bakarra jartzea proposatzen dute, horrela, errepideen zabalera ez da aldatu behar.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOn 7 metroko zabalera duten errepideak berriz marraztuko dira; zabalera 5 metrora arte murriztu ahalko da, eraikinei kalterik egin gabe eta fabrikako hormak kaltetu gabe. Halaber, aintzat hartuko dira jada eginda dauden errepideen (aldapak mantenduz) lagapenak.

071.2 Izoria. Nahiago dute 2/A aukera

“Hilerriaren ingurua” handitzearen alde daude. Ez dute zehazki aipatzen, baina badirudi 2. aukerari buruz ari direla.

Udalbatzak, gehiengo osoz, (7 aldeko boto: 5 PNV, 2 AB; 3 aurkako boto: BILDU) 3. eta 4. aukerak hautatzea erabaki du: Horrenbestez, aurkeztutako iradokizuna **zati batean onetsi dute**, txosten teknikoaren irizpideekin bat etorriz. Modu horretara, HAPOn 204 (3. aukera) eta 210 (4. aukera) lursailak lurzoru urbanizagarri gisa jasoko dira.

071.3 Izoria. Arau subsidiarioak aldatzea

Indarrean dauden arau subsidiarioetan zehaztutako zabalerek eragindako afekzioak azaldu dituzte. Hortaz, arau horiek aldatzea nahi dute. Halaber, adierazi dute gaur egun dauden errepideak eraiki zirenean hartutako konpromisoak nagusitu behar direla. Jakinarazi dute Aretxara doan bidea konpontzeko diru-laguntza eskatu dutela, Foru Planaren kargura.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **ez ebaztea erabaki du**, egungo arau subsidiarioei buruzko gai bat izategatik.

SU072 Izoria Ripa kalea, 45 / J. M. S. Q.

Izoriako 5. poligonoko 206 eta 270 lursailen arteko errepidearen zabalera (3 m) mantentzeko eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki. Eta, ondorioz, HAPOn 7 metroko zabalera duten errepideak berriz marraztuko dira; zabalera 5 metrora arte murriztu ahalko da, eraikinei kalterik egin gabe eta fabrikako hormak kaltetu gabe. Halaber, aintzat hartuko dira jada eginda dauden errepideen (aldapak mantenduz) lagapenak.

SU073 Izoria La Ripa, 42; 208 lursaila / M. Á.J H. L.

HAPOn planteatzen den alineazioa ez aplikatzeko eskatu du, kalearen zabalera 7 metrokoa izan dadin; izan ere, Izoriako 5. poligonoko 208 lursaila inguratzen duen hesiak ondare- eta ingurumen-balioa dauka.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki. Eta, ondorioz, HAPOn 7 metroko zabalera duten errepideak berriz marraztuko dira; zabalera 5 metrora arte murriztu ahalko da, eraikinei kalterik egin gabe eta fabrikako hormak kaltetu gabe. Halaber, aintzat hartuko dira jada eginda dauden errepideen (aldapak mantenduz) lagapenak.

SU074 Izoria. UE1, 204 lursaila birkalifikatzeko eskaera /J. R. Z. F.

204 lursaila soilik klasifikatzeko eskatu du. Zerbitzuak 60 zenbakiko (273 lursaila) etxearen bitartez konektatu ahal direla adierazi du. Halaber, bidea hobetzeko proposatu zaizkion obretan parte hartzeko prest dagoela esan du, nahiz eta berari ez dagokion.

Udalbatzak, gehiengo absolutuz, 3. eta 4. aukerak hautatu dituenek, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki. Ondorioz, 204 lursaila urbanizatu daitekeen lurzoru gisa jasoko da HAPOn, baina bere zerbitzuak errepide publikotik konektatu beharko ditu.

SU075 Izoria. Aretxa auzoa, 1. aukeraren aurka / A. U. P. eta beste batzuk

Izoriako 5. poligonoko 262 eta 277 lursailetakoa jabeek nahiago dute lur horiek nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako erabiltzea, lursailen egoitza-erabilera ematea baino.

Udalbatzak, gehiengo absolutuz, 3. eta 4. aukerak hautatu dituenek, aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, Aurrerakinean aipatutako UE1aren zatirik handiena desklassifikatu egiten delako.

SU076 Izoria. Alt. 2. hazkunde-zonaldea / J.A. Z. L.

Hiri-lursail berriak beste toki batean jartzeko eskatu du. Urbanizatzeko merkeagoak diren beste proposamen batzuk daudela badaki, eta bizilagunentzat hain desatseginak ez direnak. Ez du bere proposamena zehaztu, baina badirudi HAPOn beste aukerari buruz ari dela.

Udalbatzak, gehiengo absolutuz, 3. eta 4. aukerak hautatu dituenek, aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, Aurrerakinean aipatutako beste aukera batzuk aintzat hartu direlako.

SU077 Izoria. 2. aukera / Gasteizko Apezpikutz

2. aukera nahiago duela adierazi du.

Udalbatzak, gehiengo absolutuz, 3. eta 4. aukerak hautatu dituenek, aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, eskatzen den bezala 210 lursaila klasifikatzen delako.

SU078 Izeria. 2. aukera / 212256257 lursaila baztertzea /M. Á. H. L.

Izoriako 5. poligonoko 212, 256 eta 257 lursailak urbaniza daitezkeen lurzorutik kanporatzeko eskatu du.

Udalbatzak, gehiengo absolutuz, 3. eta 4. aukerak hautatu dituenek, aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, eskatzen den bezala 212, 256 eta 257 lursailak klasifikatzen ez direlako.

SU079 Izeria. 2. aukera / 263 lursaila baztertzea /E. H. L.

Aiarako katastroko 5. poligonoko 236B lursailaren klasifikazioa landa-lur izaten jarraitzeko eskatu du, eta egungo hirigunearen mugak ez aldatzeko.

Udalbatzak, gehiengo absolutuz, 3. eta 4. aukerak hautatu dituenek, aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, eskatzen den bezala 263B lursaila klasifikatzen ez delako.

SU080 Izeria. 2. aukera / 209 lursaila baztertzea / J. L. B. G.

Izoriako lursaila (katastroko erreferentzia: 209b) urbanizatzeko sailkapenetik kentzeko eskatu du, zuek hiri-lur gisa proposatu zenutena.

Udalbatzak, gehiengo absolutuz, 3. eta 4. aukerak hautatu dituenek, aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, eskatzen den bezala 209-B lursaila klasifikatzen ez delako.

SU081 Izeria. LN sailkatzea, Los Olmoseko bidegurutzean / C. U.U.

SU082 Izeria. LN sailkatzea, Los Olmoseko bidegurutzean / C. U. U.

Los Olmoseko bidegurutzearen inguruan dauden baserri eta lursail multzoa (LUE sailkapenean dagoena) landa-nukleotzat hartzeko eskaera egin du, eta, ondorioz, Izoriako 5. poligonoko 221 lursaila landa-nukleoko urbanizatu ezin daitezkeen lurzorutzat sailkatzea. Idatzi batean 7. poligonoko 51 lursaila aipatu du (5. poligonoa da).

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du** txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

SU083 Izeria. Eraikin baten banaketa horizontala / J.B. U.

Izoriako 5. poligonoko 191 lursailaren banaketa horizontala eskatu du, bertan bi etxebizitza eraikitzeko.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **ez ebaztea** erabaki du txosten teknikoko baldintzei jarraiki, HAPOa idazterakoan erabaki beharreko gai bat delako.

SU084 Izeria / Ripa, 49 bereiztea / J. M^a B.O.

Izoriako Ripa auzoko 49 zenbakiko lursail mistoa (hirikoa eta landatarra) bereizteko proiektuaren kopia bat aurkeztu du, eta aintzat hartzeko eskatu du.

Udalbatzak aho batez erabaki du aurkeztutako iradokizuna **ez ebaztea**, txosten teknikoaren baldintzei jarraituz.

SU085 Izeria / LU muga, 288 lursaila / A. I.A.

288A lursaila handitzea, muga guztia mendebalderantz mugituz 5 m.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **ez ebaztea** erabaki du txosten teknikoko baldintzei jarraiki, HAPOa idazterakoan erabaki beharreko gai bat delako.

SU086 Izeria / Batzarraren berdeguneak / J. I.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **onetsi du** txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

SU087 Izeria / Saneamendua kolektorearekin konektatzea / J.I.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **onetsi du** txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOn kolektoreen ibilbidea jasoko da ibai-parkearen ardatz gisa memoria eta antolamenduaren planoetan.

SU088 Izeria. Iza. Familia bakarreko etxebizitzak urbanizatzea / A. D. E.

Izoriako 5. poligonoko 382 eta 391 lursaila LUn jasotzeko eskatu du, familia bakarreko etxebizitzak eraikitzeko.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du** txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

SU089 Izeria. Izoriako errota birgaitzea / J. I.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **onetsi du** txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

SU162 Izeria. Lizentziak kentzeari buruzko informazio-eskaera / N. L.

Udalbatzak aho batez erabaki du aurkeztutako iradokizuna **ez ebatzea**, txosten teknikoaren baldintzei jarraituz, informazio-eskaera delako.

MENAGARAI-BEOTEGI

SU090 Menagarai Beotegi. PERI. 345 lursaila baztertzea / E. A.R.

Menagarai-Beotegiko 6. poligonoko 345 lursaila PERItik baztertzeko eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, Aurrerakinean aurkeztutako 1. aukera hautatu du, 322 lursailik gabe eta 2385 lursaila handitu gabe. Horrenbestez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU091 Menagarai Beotegi. PERI / P. P. C.:

091.1 2385 lursail osoa sartzea

2385 lursail osoa Menagaraiko PERIn jasotzea.

SU104 Beotegi. 2385 birkalifikatzea, Plan Partzialeko 3. aukera / P. P.

Beotegiko 6. poligonoko 2385 lursaila hiri-lurzorueta jasotzea.

Udalbatzak, aho batez, Aurrerakinean aurkeztutako 1. aukera hautatu du, 322 lursailik gabe eta 2385 lursaila handitu gabe. Horrenbestez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

091.2 Egikaritze-unitateak banatzea PERIn / LN

PERIa egikaritze-unitate txikiagoetan banatzeko eskatu du, kudeaketa errazte aldera.

Udalbatzak aho batez erabaki du PERIa egikaritze-unitateetan banatzeko iradokizuna **baztertzea**.

SU092 Menagarai Beotegi. PERI. 344 lursaila baztertzea / E. A. G.

Beotegiko 6. poligonoko 344 lursaila hiri-lurzoru finkatu gabetik baztertzeko eskaera egin du, gaur egun dauka klasifikazioa mantenduz (LUE).

Udalbatzak, aho batez, Aurrerakinean aurkeztutako 1. aukera hautatu du, 322 lursailik gabe eta 2385 lursaila handitu gabe. Horrenbestez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU093 Menagarai Beotegi. PERI. Informazioa aurkeztu du / E. N. V.

SU094 Menagarai Beotegi / PERIren trataera / E. N. V.

SU095 Menagarai Beotegi / PERIren trataera / P.A. L.

Udalbatzak aho batez erabaki du iradokizuna **ez ebaztea**, ez delako dokumentaziorik aurkeztu eta informazio-eskaera delako.

SU096 Menagarai Beotegi. PERI. Bidea publiko izatea / S. M. R.

Bere jabetzako (jabeetako bat da) bidea erabilera publikokoa izateko eskatu du. Halaber, jakin nahi du ea bide berriaren lagapenak ordain ekonomikoa izango duen eta etxebizitza bat eraikitzeko zenbat metro behar diren. Bere lursaila 6. poligonoko 340 zenbakikoa da.

Udalbatzak aho batez Aurrerakineko 1. aukera hautatu du; hortaz, errepideari buruzko iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Izan ere, aipatutako errepidea publikoa izatera pasako da, Plan Berezi baten barruan dagoelako, eta hori dagokion Egikaritze Unitateen garapenaren bitartez egingo da, ordain ekonomikorik gabe eta eraikitzeko eskubidea lortzen duten lursailen jabeen kargura; eskaeraren beste zatiari dagokionez, **ez da ebatziko**, antolamendu zehaztuaren parametroetan dagoelako, eta HAPOa idaztean denean zehaztuko da.

SU097 Menagarai Beotegi. PERI. Bide pribatua / E. N. V.

Menagarai-Beotegiko 6. poligonoko 641 eta 664 lursailen arteko konexioa mantentzeko eskatu du; izan ere, bigarren lursailera joateko modu bakarra, bide pribatutik, lehengo lursailetik pasatzea da.

Udalbatzak, aho batez, Aurrerakinean aurkeztutako 1. aukera hautatu du, 322 lursailik gabe eta 2385 lursaila handitu gabe. Horrenbestez, aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Halaber, lursailen arteko lotura aintzat hartuko da antolamenduan.

SU098 Beotegi. Plan Partzialeko 3. aukera; 331 eta 398 lursailak / D. P. E.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn LUE gisa sailkatuko dira aipatutako lursailak.

SU099 Beotegi. Plan Partzialeko 3. aukera; 284 eta 285 lursailak / E. P.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzen arabera, Kontzejuko baldintzei buruzkoa. Herriko iturri guztiak Planean jasotzeko iradokizuna **onetsi du**. **Zati batean onetsi du** bideei buruzko iradokizuna. **Eta zati baten onetsi du** 284 eta 285 lursailak baztertzeari buruzko iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn iturriak jasoko dira katalogoan; Beotegitik Ibaqueñera doan bide jasoko da lurralde-egituraren planoan; eta 284 eta 285 lursailak LUE bezala sailkatuko dira.

SU100 Beotegi. Plan Partzialeko 3. aukera; 284 eta 285 baztertzea / P. E.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn LUE gisa sailkatuko dira aipatutako lursailak.

SU101 Menagarai Beotegi. PERI. 339 lursaila baztertua / J. M. Z.

339 lursaila Beotegiko PERItik kentzea.

Udalbatzak, aho batez, Aurrerakinean aurkeztutako 1. aukera hautatu du, 322 lursailik gabe eta 2385 lursaila handitu gabe. Horrenbestez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**.

SU102 Beotegi. Plan Partzialeko 3. aukera; 397 lursaila birkalifikatzea / R. M. Q.

Beotegiko 6. poligonoko 397 lursaila LU gisa sailkatzea.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, UE4 mugatuko da 397 lursaileko zati batean.

SU103 Beotegi. Plan Partzialeko 3. aukera; 287 eta 288 lursailak birkalifikatzea / R. M. Q.

Beotegiko 6. poligonoko 287 eta 288 lursailak LU gisa sailkatzea.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn LUE gisa sailkatuko dira aipatutako lursailak.

SU105 Menagarai. San Pedro auzoa: 882 lursaila birkalifikatzea / M. de la S. A.

SU106 Menagarai. San Pedro auzoa: 882 lursaila birkalifikatzea / M. De La S.

Menagaraiko 2. poligonoko 882 lursaila (12.000 m²-koa) LU gisa birkalifikatzea, ondoren 4.000 m²-ko bi lursailetan banatzeko, eta etxebizitza bat eraikitzeko.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizunak **baztertu ditu** txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

SU107 Menagarai. San Pedro auzoa: 2266 lursaila birkalifikatzea / T. S. del R.

Menagarai-Beotegiko 2. poligonoko 2266 lursaila hiri-lursail gisa sailkatzeko eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn birkalifikatutako zatia 832 lursailari erantsiko zaio, lursail bakar batean. Bertan, bi etxebizitza eraiki ahalko dira.

SU108 Menagarai. San Pedro auzoa: PP / J.

Plan Partzial honi buruzko iradokizuna bileretan aurkeztu da, baina iradokizunak eta erreklamazioak aurkezteko epetik kanpo.

Udalbatzak aho batez erabaki du aurkeztutako iradokizuna **ez ebaztea**, txosten teknikoaren baldintzei jarraituz.

SU109 Menagarai. San Pedro auzoa: 791 lursaila LUn sartzea / A. Z. O.

2. poligonoko 791 lursaila (ur edangarria eta saneamendu-sarea dauka) Menagaraiko Urbanizatzeko Lurzorua daukan Landa-nukleoaren barruan sartzeko eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du** txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

SU110 Menagarai Beotegi. UE2 / J. M. U. P.

822A, 823, 824 eta 827B lursail katastralak urbanizatu daitezkeen eta dentsitate baxuko egoitza-erabilera duten lursailtzat hartzeko eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoan xedatutakoaren aurka.

SU111 Menagarai Beotegi. UE2ren banaketa / J. M^a U.

Menagarai-Beotegiko egungo UE2a jabe bakoitzari dagokion hiru unitate independentetan banatzeko eskaera egin du.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoan xedatutakoaren aurka.

SU112 Menagarai Beotegi. Mendieta UE1 mantentzea LUn; 2. aukera / Arrola Etxeak SL

Menagaraiko UE1ko hiri-lurzoru finkatu gabea izaten jarraitzea, eta bertara sartzeko urbanizazioa egiteko aukerari buruz hausnartzeko eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn Aurrerakineko 2. aukera jasoko eta arau subsidiarioetako UE1 eta UE2 mantenduko dira.

SU113 Menagarai Beotegi. Mendieta. 2. aukera, 2333 lursailaren sailkapena mantentzea / Burubio SL

Menagarai-Beotegiko 6. poligonoko (arau subsidiarioetako UE2) 2333 lursailaren sailkapena (hiri-lurzoru) mantentzeko eskatu du, baita UE2ko eraikigarritasuna eta etxebizitza kopurua ere.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn Aurrerakineko 2. aukera jasoko eta arau subsidiarioetako UE1 eta UE2 mantenduko dira.

SU114 Menagarai Beotegi / A. G.:

114.1 Eredu-gaiak eta San Pedroko Plan Partzialaren aurka egotea

Menagaraiko San Pedro auzoko Plan Partzialaren aurka dagoela adierazi du. Hazkunderak dibertsifikatu eta banatzeko proposamena egin du, auzoak landa-nukleoarekin lotzen dituzten auzoetako hazkundera sustatze aldera.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzen arabera.

114.2 692 era 732 lursaila birsailkatzea eta eraikitzea / A. G.

Menagaraiko La Calzada auzoko 732 lursaila eta Zuazako 697 lursaila bereiztea eta bertan eraikitzeko eskaera egin du.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU115 Menagarai Beotegi, 2. aukera; Menagarai-Kexaa bidea mantentzea / M^a C. S.

Menagarai Kexaakin lotzen duen bidea okupatuta dago Menagaraiko "2. aukeraren eraikitze-proiektuarekin". Erabilera publikoko bidetzat hartzeko eskaera egin du, eta "egungo planetik baztertea" nahi du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzen arabera.

SU116 Menagarai Beotegi. / M. B.C.:

116.1 1008 lursailaren ondoan dagoen erabilera publikoko errepidea

Bere etxebizitzatik igarotzen den espaloia erabilera publikokoa izatearen aurka dago.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn 683 bizitegi-lursailaren mugaketa zuzenduko da, katastro-egoera islatze aldera.

116.2 Menagarai Beotegi. Industrialdeak

Industrialdeak landa-nukleoetan sartzearen aurka dago.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn UE3 fitxan jasoko dira ekoizpen- eta egoitza-erabileren integrazio-baldintzak.

116.3 Menagarai Beotegi. PERI

Menagarai Beotegiko PERIren aurka dagoela dirudi, herrien arteko mendi-hegalei erreferentzia egiten baitie.

Udalbatzak, aho batez, Aurrerakinean aurkeztutako 1. aukera hautatu du, 322 lursailik gabe eta 2385 lursaila handitu gabe. Horrenbestez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**.

SU117 Menagarai Beotegi / 322 lursailaren sailkapena / J. L. H.

Beotegiko 6. poligonoko 322 lursail osoa LU gisa mantentzea, arau subsidiarioetan aurreikusten den bezala.

Udalbatzak, aho batez, Aurrerakinean aurkeztutako 1. aukera hautatu du, 322 lursailik gabe eta 2385 lursaila handitu gabe. Horrenbestez, aurkeztutako iradokizuna baztertu du, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU118 Menagarai Beotegi. Zaballako bidea / J. L. eta beste batzuk

Zaballa bidea kale-bide publikotzat hartzen jarraitzeko eskaera egin du.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, Zaballa bidea ez delako publikoa.

SU119 Menagarai Beotegi. Lursaila bereiztea / L. U. A.

HAPOn urbanizatu daitezkeen 3 lursailen bereizketa aztertzeko eskatu du; lursaila Beotegi 21en dago.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du** txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU120 Menagarai Beotegi / Gai orokorrak / Peregaña Elkarte

- 1) Menagaraitik A624 errepidera sartzeko bidea aldatzea (Amurriorantz). Artziniegatik Menagaraira doan A624 errepidetik sartzen den saihezbidea hobetzea (ez dute babesgunerik).
- 2) Kamioiak mendira joateko beste errepide bat eraikitzea, hirigunetik urruti (Maldai auzoa).
- 3) 4620ko errepidearen estatusuna aintzat hartzea Mendieta auzoan. 20km/h-ko muga jartzea.
- 4) Mendieta eta San Pedro auzoetan aparkaleku berriak diseinatzea. Beotegiko Zaballa auzoko hirigunea mantentzea.
- 5) Sarbide independenteak dituzten urbanizazio berrien proiektuak idaztea.
- 6) Kanalizazioaren lurperatzea indartzea eta sustatzea.
- 7) Menagarai eta Beotegiko auzoetako seinaleak, eta mapa bat jartzea mugak adieraziz.
- 8) Nukleoa berrantolatzea, banaketa horizontala eta bertikala baimenduta, eta etxolak birgaitzea etxebizitza gisa erabiltzeko.

Udalbatzak, aho batez, 2. iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

Udalbatzak, aho batez, 1, 3, 5, 6, 7 eta 8 iradokizunak **ez ebaztea** erabaki du, HAPOa alde batera utzita sustatu behar diren gaiak direlako, edo Udalaren eskumenekoak ez direlako. Eta 4. iradokizunari dagokionez, Udalbatzak, aho batez erabaki du **ez ebaztea**, aparkatzeko plaza berrien diseinuari dagokionez; eta **baztertu egin du** Zaballa auzoko hirigunea mantentzeari buruzko zatia, LU 117ko irizpenarekin bat etorrira.

SU121 Jauregui. Birgaitzea eta erabilera aldatzea / B. C.

121.1: 2. poligonoko 2213 lursailen dagoen etxolaren egoera aldatzeko eskatu du, birgaitu ahal izateko.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **ez ebaztea** erabaki du, HAPOn landuko delako xehetasunez.

121.2: Jauregui auzoko etxebizitza kopurua ez handitzeko eta eraikin zaharrak birgaitzeko aukera emateko eskaera egin du.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, etxebizitza berriak ez eraikitzeari dagokionez, baina **onetsi egin du** HAPOk arautzen duen bezala dauden eraikinak birgaitzeko proposamena. Hori guztia txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU123 Jauregi. LN-n sartzea 2. poligonoko 2262 lursaila / A. Z. O.

Jauregi auzoko landa-nukleoan sartzea Menagarai-Beotegiko 2. poligonoko 2262 lursail osoa, eta 587 lursaila kanporatzea.

Udalbatzak gehiengo osoarekin (8 aldeko boto: 5 PNV, 3 BILDU, eta bi abstentzio: AB) iradokizuna **zati batean onetsi du**, 2. poligonoko 2262 lursaila sartzeari dagokionez; eta erabaki du **ez ebaztea** 587 lursailaren kanporaketa, aurrerago aztertuko delako. Hori guztia txosten teknikoko irizpideei jarraiki.

SU124 Jauregi. LN-n sartzea 2215 lursaila / X. A. M.

Menagarai-Beotegiko Jauregi auzoko 2. poligonoko 2215 lursail osoa sartzea landa-nukleoan, LUE gisa.

Udalbatzak gehiengo osoarekin (8 aldeko boto: 5-PNV, 3 BILDU eta bi abstentzio: AB) aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoko irizpideei jarraiki. Horrenbestez, HAPOn 2. poligonoko 2215 lursail osoa sartuko da landa-nukleoan.

SU125 Jauregui / 2172 lursaila LN-n sartzea / D.C.

Jauregi auzoko 2172 lursaila sartzeko eskatu du, bera bizi den lursailaren ondoan dagoena (363).

Udalbatzak gehiengo osoarekin (8 aldeko boto: 5-PNV, 3 BILDU eta bi abstentzio: AB) aurkeztutako iradokizuna **zati batean onetsi du**, txosten teknikoko irizpideei jarraiki. Horrenbestez, HAPOn 2. poligonoko 2172 lursail osoa sartuko da landa-nukleoan.

SU126 Jauregui / 341 lursaila LN-n sartzea / J. Z.G.

Menagaraiko 2. poligonoko 341 lursaila Menagaraiko Jauregiko auzoko landa-nukleoan sartzeko eskatu du (urbanizatu ezin daitekeen lurzorua gisa).

Udalbatzak gehiengo osoarekin (8 aldeko boto: 5, 3 BILDU eta bi abstentzio: AB) aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoko irizpideei jarraiki. Horrenbestez, HAPOn 2. poligonoko 341 lursail osoa sartuko da landa-nukleoan.

RETES DE LLANTENO

SU127 Erretes. Interes arkeologikoko zona / J. A. G.A.

Retes de Llanteno 6. poligonoko 738 lursaila interes arkeologikoko zonatzat hartzearen arrazoia jakin nahi du.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **zati batean onetsi du** txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Ondare Sailari kontsultatu eta gero, eta 56 zenbakiko arkeologia-susmoaren afekzioaren eta ibilbidearen kokapena argitu ondoren, HAPOk planoan behar bezala islatuko da.

SU128 Erretes. 833 lursaila berriz sailkatzea / M^a L.A. V.

SU129 Erretes. 833 lursaila berriz sailkatzea / M^a L. A. V.

Retes de Llantenoko 6. poligonoko 833 lursailaren zati bat landa-lur izatetik hiri-lur izatera pasatzeko eskaera egin du, zerbitzu guztiak dituelako.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOn aztertuko dira lursailean kontserbatu behar diren zuhaitzak, eta UE3 handituko da, 833 lursailaren zati bat bertara gehitzeko.

SU130 Erretes. 855 lursaila birkalifikatzea / R. M.

Retes de Llantenoko 1. poligonoko 855 lursaila hiri-lur gisa sailkatzeko eskaera egin du, etorkizunean etxebizitza bat eraikitzeko.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du** txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

MURGA

SU131 Murga. 124 lursaila kalifikatzea, hilerriaren ondoan dagoena / M. A. M. J.

Murgako 4. poligonoko 124 lursaila urbanizatu daitekeen lurzoru gisa mantentzeko eskatu du, arau subsidiarioetako lehengo sailkapena mantenduta.

Udalbatzak aho batez erabaki du **ez ebaztea** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki; izan ere, HAPOn hasierako onespeneraren fasean aztertuko da gai hori.

SU132 Murga / 135 lursaila birkalifikatzea, poligonoko igoera / M. A. M.

Murgako 4. poligonoko 135 lursail osoa, edo haren zati bat, hiri-nukleoan sartzea, zerbitzu guztiak dituelako eta errepide publikoaren parean dagoelako.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU133 Murga. 384 lursaila birkalifikatzea, Markijana errepidea / A. A., A. M^a E.

Murgako 3. poligonoko 384 lursailaren sailkapena aldatzeko eskatu du: baso-lur izatetik, urbanizatu daitekeen lurzoru izatera.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du** txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU134 Murga. 146 lursaila desklasifikatzea, elizarako igoera / J. M. I.

Murgako 4. poligonoko 146A lursaila desklasifikatzeko eskatu du, urbanizatu ezin daitekeen lurzoru izateko.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU135 Murga. 1. sektorea. 144 lursaila birkalifikatzea / J. M^a M. O.

144A azpilursailaren sailkapena aldatzea eskatu du. Hiri-lur izatea eskatu du, Murgako 1. sektoreko jarduera bakana izanik.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrenbestez, HAPOn Plan Partzialaren kudeaketa erraztuko duten aukerak aztertuko dira:

- Plan Partzial bakarra
- Plan Partzial bakarra, hainbat egikaritze-unitaterekin
- Plan Partziala bi plan txikiagotan banatzea, bat iparraldean eta bestea hegoaldean.

SU136 Murga. 1. sektorea, 336 lursaila kanporatzea / J. P. Z.

Murgako 4. poligonoko 336 lursaila kanporatzeko eskatu du, bertan eraiki ahal izateko edo sektore horretako plan partzialaren garapena azkartze aldera.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **baztertu du** txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrenbestez, HAPOn Plan Partzialaren kudeaketa erraztuko duten aukerak aztertuko dira:

- Plan Partzial bakarra
- Plan Partzial bakarra, hainbat egikaritze-unitaterekin
- Plan Partziala bi plan txikiagotan banatzea, bat iparraldean eta bestea hegoaldean.

SU137 Murga. Murgako dorrea / M^a T. M. I.

SU138 Murga / Murgako dorrearen erabilera berriak / T. M. I.

4. poligonoko 369 lursaileko dorrearen eta bere ingurunearen erabilera handitzeko lizentzia eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrenbestez, HAPOn hirugarren mailako erabilera berriak zabalduko dira eraikinen barruan, baina URaren eta Ondare Sailaren onespena beharko dute.

SU139 Murga. Komunitatearen ekipamendua / Murgako Administrazio Batzarra

Murgako 4. poligonoko 336 lursaila Aurrerakinean proposatutako ekipamendua jartzeko aukera hobe delako uste du (Aurrerakinean 102 lursaila proposatzen du).

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOn Murgako Plan Partzialaren zonakatzeko proposamena aldatuko du, zehaztutako lotesle gisa sartuz ekipamendu berriaren kokapena (La Iglesia auzoko goialdea, oraingo ekipamenduen ondoan).

SU140 Murga / Proposamen orokorrak/ E. A. M.:

140.1 Murgako 4. poligonoko 336 lursaila Aurrerakinean proposatutako ekipamendua jartzeko aukera hobe delako uste du (Aurrerakinean 102 lursaila proposatzen du).

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn kokapenaren araudia eta erabilera-aldaketa malgutuko dira.

140.2: Urbanizatu daitekeen zona Iturria auzoraino zabaltzeko eskatu du, auzo desberdinak komunikatzeko aldera.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

140.3: Zerralde erreka ondoan bide berdeak edo pasealekuak jartzeko proposamena egin du, La Iglesia, Iturria eta Arespexueta konektatzeko. Halaber, La Iglesia auzoaren inguruan zonak mugatzea hiri-hazkunderako.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOn Zubito-Zerralde ibai-parkea gehitu zaio egitura orokor eta organikoari.

SU141 Pol. Markijana. Remail Tramame / J. M^a B. A.:

141.1 Sailkapena eta errepedeak berriz eratzea

Poligonoa finkatu gabeko lurzoru gisa sailkatzeko eskatu du, hiru egikaritze-unitatetan, lurzoruaren jabetzaren arabera. Bestetik, planean proposatutako errepedeak kentzeko eskatu du, eta proposatu du HUAren ondoan berriki eraiki den errepedetik sartzeko, A3622 errepirako konexio bakar batekin.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn egituraren antolamendua berriz itxuratuko da.

141.2 Dekantatzeko baltsa eta 30 metroko lagapen-hesia kentzea

Dekantatzeko baltsa tokiz aldatzeko eskatu du, Izoria ibaiaren ondoan jarritz. Halaber, Izoria ibaiaren ezkerrean dagoen 30 metroko lagapen-hesia kentzeko eskatu du; horrela, alde horri erabilera industrialia eman ahalko zaio.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU142 Pol. Markijana. 365 lursaila bereztea / M^a A. M. J.

Markijanako 3. poligonoko 365 lursaila bereizteko eskatu du. Bertan, orain dela bi urte bi etxebizitzatan banandu zen baserri bat dago. Orain lursaila bereizi nahi da, etxebizitza bakoitza lursail zati batekin geratzeko.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

QUEJANA-KEXAA

SU143 Kexaa. Nukleoaren muga / A. eta C. B. D.

SU144 Kexaa / Villodaseko LN Ra egokitzea katastroan / A. B. eta beste batzuk

Kexaako landa-nukleoa (LUE) 6. poligonoko 110 azpilursailaren muga katastralarekin bat etortzea nahi du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi ditu** aurkeztutako iradokizunak txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOk planoetan mugak berriz ezarriko dira, etxebizitza kopurua handitu gabe.

SU145 Kexaa. Los Arcoseko plan berezia / A. S. M. C.

Kexaako Los Arcos auzoko Plan Berezia izapidetzen hasiko direla jakinarazi du.

Udalbatzak, aho batez, erabaki du iradokizuna **ez ebatzea**, txosten teknikoaren baldintzei jarraituz, izapidetzen ari den espediente bat delako.

SU146 Kexaa. Villodas / F. Z. G.:

146.1.- Araudia malguagoa egitea. Lurzoruari lotzen ez zaion etxebizitza

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn Tokiko Hirigintza Arauetan erabilerak malgutuko dira, indarrean dagoen araudiaren esparruan.

146.2.- 2415 lursaila LN-n sartzea

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

SU147 Kexaa / Suspertzea / M^a J. Z. de la T.

Herrira jendea bizitzera etortzeko neurriak hartzeko eskaera egin dute.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn arrazoiketa hauek indartuko dira arrazoitzeko memorian.

LLANTENO

SU148 Llanteno / Llantenoko Administrazio Batzarra:

148.1 Llanteno. Landa-nukleoaren figura (LUE)

LUEn egin diren oinezkoen komunikazioekin ados dagoela esan du. Baita landa-nukleoaren figura (LUE) mantentzearen garrantzia ere. Halaber, Arabako Landa-nukleoaren inbentarioen aurka dagoela adierazi du.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **ez ebaztea** erabaki du, HAPOkon ondorengo faseetan aztertuko delako.

148.2 Llanteno. Birgaitzea eta erabilera-aldaketa malgutzea

Memoriako 5. puntuarekin ados dago, eraikinen erabilera-aldaketa eta birgaitzea malgutzeari buruzkoa.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn urbanizatu ezin daitezkeen lurzoruen araudia malgutuko da.

148.3 Llanteno. Ekintzak zentralizatzea ikastetxeak dauden tokian

Ikastetxeen ondoko lursaila haurrek jolasteko erabiltzeko proposamena egin dute (2. poligonoko 1583 lursaila). Ekintzak zona horretan zentralizatuz.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn Llantenoko 2. poligonoko 1583 lursaila jasoko da LN-n.

148.4 Llanteno. Azpiegiturak aldatzea

Azpiegituren aldaketak atxiki ditu, planoetan egingo errealitatea islatzea aldera, eta eskatu du planaren etorkizuneko aldaketei buruzko informazioa jaso nahi duela.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOn sare horiek grafiatuko dira, eta azpiegituren planoetan jasoko dira.

SU149 LLlanteno. Inorzako gurutzebidea / Á. J. E. B.

HAPOn Inorzako bidegurutzearen estutasuna eta ikuspen urria saihesteko irtenbideak aintzat hartzeko eskaera egin du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOn ibilbidea eta beharrezko lagapenak jasoko dira gatazka hori konpontze aldera.

SU150 LLlanteno. Ureta auzoa 64. 1744 lursaila desafektatzea (antolamendutik kanpo) / F.Fdez. de P. F.

Llantenoko 2. poligonoko 1744A lursailaren hirigintza-egoeraren berri idatziz emateko eskatu du. Halaber, "antolamendutik kanpo" sailkapena aldatzeko eskatu du, eta A3634 errepidea zabaltzen bada, desjabetze-espeditzearen eraginik gabe egiteko eskatu du (3. or.).

Udalbatzak, aho batez, erabaki du **ez ebaztea** iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzei jarraituz, informazio-eskaera delako.

SU151 Llanteno. Garabilla 18ko padel zelaia / A. D. S.

Garabillako 18 zenbakian dagoen landetxeko padel-zelaiari erabilera publikoa emateko lizentzia eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Ondorioz, HAPOn jasoko da, araudian sartuko da LUEko instalazio pribatuen erabilera publikoarekin bateragarri izateko araudia, tamainaren mugak eta bestelako ustezkoak zehaztuz.

SU152 Llanteno. Tuba de Llantenoko Plan Berezia / J.M. S. I.

Tuba de Llanteno Plan Berezia izapidetzen hasi dela jakinarazi du. Indarrean dauden arau subsidiarioek diotenarekin bat etorritik, Herrerías ibaiaren ondoan dagoen 2. poligonoko 1263 lursailean landa-ostatu turistiko bat jartzeko.

Udalbatzak, aho batez, erabaki du **ez ebatzea** iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Izan ere, aurreko arau subsidiarioekin hasi zen izapide bat da, eta hura ebatzi arte ezin da HAPOn jaso, ezta baztertu ere.

SU153 Llanteno / A. Z. A.:

153.1 LNko 541 eta 548 lursailak mantentzea

1. poligonoko 541 eta 548 lursailak LN-n mantentzeko eskatu du (LUE gisa).

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **onetsi du**, txosten teknikoaren baldintzei jarraiki.

153.2: 1577 - 1581 lursailak kalifikatzea

2. poligonoko 1577 eta 1581 lursailak LN gisa mantentzeko eskatu du (LUE gisa).

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du**, txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

BESTE BATZUK

SU154 Etxegoien /J. I. A. M.:

154.1 Etxegoien. 723 lursailaren eraikigarritasuna

Arau subsidiarioetako aukera mantentzeko eskatu du, hau da, Etxegoieneko 5. poligonoko 723 lursailaren bigarren eraikin bat eraikitzea; izan ere, behar diren zerbitzuak ditu.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzen arabera.

154.2 Etxegoien. Ubidean tutuak jartzea

HAPOn errekan tutuak jartzeko obra aintzat hartzeko eskatu du, ura errepidetik ez igarotzeko.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **ez ebatzea** erabaki du txosten teknikoaren baldintzei jarraituz.

SU155 Sojo / 1557 lursaila LN gisa jartzea eta 1555 lursaila ateratzea / F. E. A.:

155.1.- Sojoko 1. poligonoko 1557 lursaila landa-nukleoan sartzea.

155.2.- 1555 lursaila ateratzea

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **ez ebatzea** erabaki du txosten teknikoaren baldintzei jarraiki, LNen mugak HAPOn lantzeko gai bat direlako.

SU156 Sojo. Bolatokia birkalifikatzea / Sojoko Administrazio Batzarra

Sojoko 1. poligonoko 1653 lursaila birkalifikatzeko eskatu du, hornidura-lursail gisa, alegia. Bertan bolatoki bat jarri nahi du.

Udalbatzak, aho batez, **onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrela, HAPOn 1. poligonoko 1653 lursaila ekipamendu gisa zonifikatuko da.

SU157 Sojo / Zonak eta elementu publikoak mantentzea / R. I.L.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna, txosten teknikoaren baldintzen arabera.

SU158 Maroño. 236 lursailaren erabilera-aldaketa, LUE / I. L. I.

Maroñoko 7. poligonoko 236 lursailean dagoen etxola etxebizitza bihurtzeko baimena eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, **zati batean onetsi du** aurkeztutako iradokizuna txosten teknikoko baldintzei jarraiki. Horrenbestez, HAPOn jasoko da erabilera aldatzeko aukera katalogoaren fitxan, ondare izaera duten muga orokorrekin, hesiekin, eta abar.

SU159 SNU. Sojo. 1559 lursaila etxebizitza gisa birgaitzea / V. N. E.

Sojoko 1. poligonoko 1559 lursaileko eraikina nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueratik bereizteko eskatu du, etxebizitza gisa birgaitu ahal izateko.

Udalbatzak, aho batez, aurkeztutako iradokizuna **ez ebaztea** erabaki du, txosten teknikoak dioenaren aurka.

SU160 SNU Opellora/Costera. Txabarri auzoa, LUE eraikitzea / M.I. C. A.

Opellora/Costerako Txabarri auzoko 1. poligonoko 967 eta 953 lursailetan eraikitzeko aukera eskatu du.

Udalbatzak, aho batez, **baztertu du** iradokizuna. Horrenbestez, HAPOn LUEko araudia malgutzea aintzat hartzeko eskatu du, jada berri eman da.

SU161 Olabazar 630 lursaila / I.A.A.

Olabazarreko 4. poligonoko 630 lursailean eraikin txiki bat egin nahi du.

Udalbatzak, aho batez, iradokizuna **baztertu du** txosten teknikoko baldintzei jarraiki.

Bigarrena.- Zehaztea Udaleko Hiri Antolamendu Orokorreko Plana idazteko balio dezaketen irizpide eta helburu gisa plan horren Aurrerakinean jasotako guztiak, aurreko puntuan (iradokizunak eta aukerak ebazteari buruzko puntua) adostutako aldaketekin. Halaber, aintzat hartuko dira Ingurumenaren Azterketan jasota irizpide guztiak.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea iradokizun edo aukeraren bat eman duten interesdun guztiei, eta oharataraztea ezingo dutela inolako errekurtsorik jarri. Dena den, akordio honetan zehaztutako irizpide eta helburuak jasotzen dituen HAPO hasieran onetsi ondoren erreklamazioak aurkeztu ahal dituzte.

3.- Arespalditzako UE-8 egikaritze-unitatea (Alday Ongintzako Fundazioa):

- **Hasiera batean onestea, bidezkoa bada, Urbanizatzeko Jarduketa Plana (UJP).**
- **Doan lagatzea Alday Ongintzako Fundazioari, bidezkoa bada, Udalari UE-8n dagokion hirigintza-eraikigarritasunaren portzentajea. Hasiera batean onestea, bidezkoa bada, Hirigintzako Hitzarmena.**
- **Hasiera batean onestea, bidezkoa bada, Birpartzelatzeko Proiektua.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Martxoaren 18ko 78/2016 Foru Agindua. Beraren bitartez behin betiko onetsi zen Aiarako udalerraren Antolamendurako Arau Subsidiarioen bosgarren aldatetaren espedientea, Arespalditzako zaharren egoitza handitzeari buruzkoa. Halaber, funtsezkoak ez diren baldintza batzuk gehitu ziren, eta horiek betetakoan espedientea Foru Aldundira igorriko da, jendaurrean jartzeko izapide berria egin behar izan gabe, exekutibotasuna aitortu eta diligentziak egin eta argitaratze aldera.

Eta maiatzaren 12ko 121/16 Foru Agindua, 78/2016 Foru Aginduak ezarritako baldintzak bete direla zehazten duena.

IKUSI DA.- Urbanizatzeko Jarduketa Programa, jabe bakar gisa hirigintza-exekuziorako hitzarmenaren proposamena eta Arespalditzako UE-8 birpartzelako proiektua; Alday Ongintzako Fundazioak aurkeztu zituen 2016ko maiatzean.

IKUSI DIRA.- 2016ko maiatzaren 20an Udaleko zerbitzu teknikoak igorritako aldeko txostenak, hiru dokumentuak hasiera batean onesteari buruzkoak.

IKUSI DA.- Txosten juridikoa, Alday Ongintzako Fundazioari esparru horretarako administrazioari dagozkion plusbalien % 15a doan lagatzeari buruzkoa, lurzorua udal-ondare izaera duena.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Udalak hitzarmenak sinatu ditu Alday Ongintzako Fundazioarekin eta Foru Aldundiarekin adinekoak zaintzeko laguntza arautzeko gaur egungo zaharren egoitzan (Fundazioarena dena), Arespalditzan. Hala, Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa eta funtzionamendua bere gain hartu zuen 2009az geroztik, eta Udalak Foru Aldundiarekin hitzartutako plaza kopuru bat dauka.

Zerbitzuak ongi funtzionatu duenez, eta egoitza handitzea beharrezkoa denez, interes publikoagatik Arespalditzako 5. poligonoko 137-B, C eta D lursailak lurzoru urbanizagarri gisa sailkatu ziren, eta egoitza laguntza-ekipamendu gisa. Horrela, laguntzarako hitzartutako zentro handiago bat eraikiko dute, Arabako Foru Aldundiaren Ongizate Sailarekin lankidetzan.

Horretarako, Alday Ongintzako Fundazioa interes publikokoa eta irabazi asmorik gabeko elkarte bat dela frogatu ondoren, eta interes sozialeko ekipamendu bat eraiki behar duela jakin ondoren, erabilera orokorrerako, egoki deritzogu elkarteari doan lagatzea Udalari Arespalditzako UE-8n dagokion portzentajea, hirigintza-eraikigarritasunarena eta kargarik gabekoa; kontzeptua komunitatearen parte-hartzea hirigintza-plusbalioetan izango da, lurzorua udal-ondare publiko gisa izendatutakoa, ekipamendua bertan eraikitzeko. Ondorioz, Udalak konpromisoa hartu du Udaleko zerbitzu teknikoek zenbatutako plusbalioaren kopuru hori ez eskatzeko (60.631,83 euro). Betiere, Alday Ongintzako Fundazioak, gutxienez, zaharren egoitzaren eraikuntzan kopuru horretako inbertsio bat egin duela frogatzen badu.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Halaber, interes publikokoa da tokiko zuzkidura publikoko estandarrak aldatzea, Arespalditzako UE-8ri dagozkionak (223,6 m² berdegune eta espazio libreentzat), indarrean dagoen araudiari jarraiki, Arespalditzako 2. sektorera; izan ere, ezinezkoa da estandarrak betetzea UE-8aren tamaina dela-eta, eta 2. sektorea da gertuen dagoen tokia.

Eta sustatzaileari jakinarazi zaio Urbanizatzeko Jarduketa Plana, Hitzarmena eta birpartzelatze-proiektuaren behin betiko onespenearekin batera berehala erregistratu beharko duela, bere kargura, tokiko sistemen estandarretarako lursaila lagatzeko eta urbanizatzeko betebeharraren lekualdaketa,

hirigintza-karga gisa; halaber, urbanizazioaren balioetsitako kostua adierazi beharko du, bere jabetzako erregistro-finkan, Arespalditzako 2. sektoreko lursailei dagokiena.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Urbanizatzeko Jarduketa Planean zerbait falta dela hauteman da, behin betiko onetsi aurretik konpondu behar dena.

Horrela, birpartzelatze-proiektuan, memoriaren seigarren atalean zehazten dira beharrezko lagapenak tokiko zuzkiduren kontzeptuarekin; zehazki, berdeguneak eta espazio libreak jartzeko lurzorua gordetzeari buruzkoa (223,26 m²). Adierazten da Arespalditzako 2. sektorera aldatuko dela, eta gutxienez 37 zuhaitz landatzeko betebeharra duela, Arespalditzako UE-8 esparruan bertan. Urbanizatzeko Jarduketa Planean tokiko zuzkidurak 2. sektorera aldatzeari, UE-8ko sarbideei eta azpiegituretan egin beharreko obrei (hiri-instalazioak beharrezko zerbitzuekin hornitzeko) buruzko konpromisoak zehazten diren arren, ez da zehazten 2. sektorera aldatzen den tokiko zuzkiduren azalera (223,26 m²), eta ez da aipatzen gutxienez 37 zuhaitz landatu beharra.

Hori dela eta, Urbanizatzeko Jarduketa Plana hasiera batean onetsiko da, baina, horretarako, hautemandako hutsunea konpondu beharko da, 2. sektorera eramango diren tokiko zuzkiduren azalera ere zehaztu beharko da (223,26 m²) eta gutxienez 37 zuhaitz landatzeko betebeharra urbanizazio-karga gisa jarri beharko da. Halaber, argitu egin behar da ea 30.000 euroko aurrekontu horretan dagoen zuhaitz horiek landatzeak ekarriko duen kostua; hala ez bada, bere aurrekontua kalkulatu beharko da eta kopuru osoa aldatu, eta, ondorioz, baita urbanizazio kargen % 1eko bermearen zenbatekoa ere.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Udaleko zerbitzu teknikoek txostenak dioen bezala, Udala aprobetxamenduaren % 15a doan lagatzearekin ados egon arren (hirigintzako plusbalioen kontzeptupean), baloratu egin behar da, eta hitzarmenaren behin betiko onespeneraren aurretik argitaratu behar da. Horrenbestez, laugarren klausula honela geratuko da:

“LAUGARRENA.- Alday Ongintzako Fundazioa interes publikoko erakunde pribatu bat da, irabazi-asmorik gabekoa, eta bere helburua da, bere estatutuen 3. artikulua dioenez, ongintza, laguntza eta sustapen soziokulturala ematea, Aiarako bizilagunak aintzat hartuz. Orain dela gutxi berriz sailkatutako lursailaren helburua da, ekipamendu gisa, interes sozialeko laguntza-zentro hitzartu bat eraikitzea, guztiok erabili ahal izateko. Alday Ongintzako Fundazioak ordainduko ditu gastuak, Foru Aldundiko Ongizate Sailak Udalarekin duen lankidetzaren baitan.

Horrenbestez, erabaki da Udalak Alday Ongintzako Fundazioari doan lagatzea Udalarik Arespalditzako UE-8n dagokion hirigintza-eraikigarritasun portzentajea, hirigintzako kargarik gabekoa, komunitatearen parte-hartzea hirigintzako plusbalioetan kontzeptuarekin. Lurzuaren ondare publikotzat hartzen da, zaharren egoitza bertan eraikitzeko. Ondorioz, Udalak konpromisoa hartu du Udaleko zerbitzu teknikoek zehaztutako plusbalioaren kopuru hori ez eskatzeko (60.631,83 euro). Betiere, Alday Ongintzako Fundazioak, gutxienez, zaharren egoitzaren eraikuntzan kopuru horretako inbertsio bat egin duela frogatzen badu. Hori guztia bat etorriko da Lurzuari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 118 b) eta 115.1 e) artikuluekin.

Hitzarmen honi I. Eranskina gehitu zaio, Alday Ongintzako Fundazioaren Estatutuen kopia, hain zuzen, bere izaera ongintzazkoa dela eta Eusko Jaurlaritzako Erregistro Publikoan izena eman duela frogatze aldera.”

HONAKO HAU GERTATU DA.- Arrazoi beragatik birpartzelatzeko proiektuaren Memoriaren seigarren atala zuzenduko da, eta behin betiko onetsi aurretik hirigintza-

aprobetxamenduaren lagapenaren balorazioa gehituko zaio, aurretik esan bezala eta Udaleko zerbitzu teknikoen txostenak dioenari jarraiki.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Sustatzaileak Udaleko bulegoetan 300 euroko berme bat utzi zuen 2016ko maiatzaren 19an, hirigintzako kargen % 1 horri dagokiona, Urbanizatzeko Jarduketa Planean egindako kalkuluen arabera, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 158. artikulua dioena bermatzeko, Urbanizatzeko Jarduketa Plana onesteko.

Gainera, Lurzoruaren Legearen 160. artikulua, hirigintza-hitzarmena arautzen duenak, eskatzen du jabeek hartutako konpromisoak hitzarmena sinatzen dutenek bermatu behar dituztela, "hirigintzako kargaren" % 7ko abala emanaz. 30.000 euroko hirigintza-karga baten hasierako kalkuluan, bermea 2.100 eurokoa izango litzateke; berme hori ez da aurkeztu.

Horrenbestez, Hitzarmena eta Urbanizatzeko Jarduketa Plana behin betiko onesteko, bermeak aurkeztu direla frogatu beharko da, eta bere kasuan aintzat hartu beharko dira hirigintza-kargen behin betiko aurrekontuan egin litezkeen aldaketak, Urbanizatzeko Jarduketa Plana zuzendu ondoren, arestian aipatutako baldintzetan, zuhaitzak landatzeko beharra gehitzeari buruz.

AINZAT HARTU DA.- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/06 Legearen 27. artikulua, 152. artikulua eta ondorengoak, 160. artikulua eta ondorengoak, eta zazpigarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa (uztailaren 30eko EHAA). Eta, uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 6. eta 7. artikuluetan zehaztutakoa, hirigintza-estandarrei buruzkoa.

Era berean, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 115.1 e) eta 118.b) artikuluetan xedatutakoa.

AINZAT HARTU DA.- Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22. eta 47. artikuluetan xedatutakoa.

Udalbatzak, 2016ko maiatzaren 30eko ezohiko bilkuran, aho batez honako hau **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Hasiera batean onestea Arespalditzako UE-8ko Ekintza Programa urbanizatzailea, Alday Ongintzako Fundazioak aurkeztutakoa, hitzarmen-sistemaren bitartez; baina behin betiko onetsi aurretik honako hutsune hauek konpondu beharko dira:

- 2. sektorera aldatuko diren zuzkidura publikoen lagapenaren azalera zehaztu behar da: 223,26 m².
- Urbanizatzeko karga gisa UE-8n gutxienez 37 zuhaitz landatzea gehitu behar da. Halaber, argitu egin behar da ea 30.000 euroko aurrekontuan jada jasotzen den zuhaitz horiek landatzea, zehazki adierazi ez den arren; aurrekontuan jasotzen ez bada, kalkulatu egin beharko da, urbanizatzeko kargen % 1eko bermea ere, eta, ondoren, bermea ordainduko da.

Sustatzaileari jakinaraztea Urbanizatzeko Jarduketa Plan honen helburu den urbanizazioa bete ahal izateko, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzaren irailaren 9ko 1753/2015 Ebazpeneko baldintzak bete beharko direla, udal-plangintzak eskatzen duen bezalaxe, eta aurretik sektore-baimenak eskatu beharko zaizkio eskumeneko organoari, errepideen arloan.

Arespalditzako UE-8ko Ekintza Programa urbanizatzailea behin betiko onetsiko da maiatzaren 12ko 121/16 Foru Agindua ALHAOn argitaratu ondoren. Agindu horren bitartez, 78/2016 Foru Aginduak ezarritako baldintzak eta arau subsidiarioen 5. aldaketaren exekutibotasuna betetzat hartzen dira.

Bigarrena.- Udalak Alday Ongintzako Fundazioari doan lagatzea Udalari Arespalditzako UE-8n dagokion hirigintza-erakigarritasun portzentajea, hirigintza-kargarik gabekoa, komunitatearen parte-hartzea hirigintzako plusbalioetan kontzeptuarekin. Lurzoruaren ondare publikotzat hartzen da, zaharren egoitza bertan eraikitzeko. Hori guztia Alday Ongintzako Fundazioa interes publikokoa eta irabazi-asmorik gabeko erakunde bat dela frogatu delako, eta interes sozialeko eta pertsona guztiek erabiltzeko ekipamendu bat eraiki behar duelako.

Hasiera batean onestea Alday Ongintzako Fundazioak aurkeztutako eta hitzarmen bidez egindako hirigintza-egikaritzearen Hitzarmena, Arespalditzako UE-8ren jabe bakar bezala. Dena den, behin betiko onetsi aurretik hirigintza-kargak kalkulatzetik sortutako kopuruaren % 7 jarri beharko du berme gisa. Halaber, aurkeztutako hitzarmenean laugarren klausula bat jarri beharko da. Honela dio:

“LAUGARRENA.- Alday Ongintzako Fundazioa interes publikoko erakunde pribatu bat da, irabazi-asmorik gabekoa, eta bere helburua da, bere estatutuen 3. artikulua dioenez, ongintza, laguntza eta sustapen soziokulturala ematea, Aiarako bizilagunak aintzat hartuz. Orain dela gutxi berriz sailkatutako lursailaren helburua da, ekipamendu gisa, interes sozialeko laguntza-zentro hitzartu bat eraikitzea, guztiok erabili ahal izateko. Alday Ongintzako Fundazioak ordainduko ditu gastuak, Foru Aldundiko Ongizate Sailak Udalarekin duen lankidetzaren esparruaren baitan.

Horrenbestez, erabaki da Udalak Alday Ongintzako Fundazioari doan lagatzea Udalari Arespalditzako UE-8n dagokion hirigintza-erakigarritasuneko portzentajea, hirigintza-kargarik gabekoa, komunitatearen parte-hartzea hirigintzako plusbalioen kontzeptuarekin. Lurzoruaren ondare publikotzat hartzen da, zaharren egoitza bertan eraikitzeko. Ondorioz, Udalak konpromisoa hartu du Udaleko zerbitzu teknikoek zehaztutako plusbalioaren kopuru hori ez eskatzeko (60.631,83 euro). Betiere, Alday Ongintzako Fundazioak, gutxienez, zaharren egoitzaren eraikuntzan kopuru horretako inbertsio bat egin duela frogatzen badu. Hori guztia, bat etorriko da Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 118 b) eta 115.1 e) artikuluekin.

Hitzarmen honi I. Eranskina gehitu zaio, Alday Ongintzako Fundazioaren Estatutuen kopia, hain zuzen, bere izaera ongintzazkoa dela eta Eusko Jaurlaritzako Erregistro Publikoan izena eman duela frogatze aldera."

Arespalditzako UE-8ko Ekintza Programa urbanizatzailea behin betiko onetsiko da maiatzaren 12ko 121/16 Foru Agindua ALHAOn argitaratu ondoren. Agindu horren bitartez, 78/2016 Foru Aginduak ezarritako baldintzak eta arau subsidiarioen bosgarren aldaketaren exekutibotasuna betetzat jotzen dira.

Hirugarrena.- Hasiera batean onestea Alday Ongintzako Fundazioak aurkeztutako birpartzelatzeko proiektua, UE-8ren jabe bakar gisa. Dena den, proiektuaren Memoriaren seigarren atala zuzendu beharko da onetsi aurretik, eta bertan gehitu beharko da hirigintza-aprobetxamenduaren lagapenaren balorazioa, maiatzaren 20ko Udaleko zerbitzu teknikoek igorritako txostenak dioen bezala.

Arespalditzako UE-8ko Ekintza Programa urbanizatzailea behin betiko onetsiko da maiatzaren 12ko 121/16 Foru Agindua ALHAOn argitaratu ondoren. Agindu horren bitartez, 78/2016 Foru Aginduak ezarritako baldintzak eta arau subsidiarioen bosgarren aldaketaren exekutibotasuna betetzat jotzen dira.

Laugarrena.- Sustatzaileari jakinaraztea Arespalditzako UE-8ari dagozkion tokiko zuzkidura publikoen estandarrak aldatzea aurreikusten duten UJP, Hitzarmena eta Birpartzelatzeko Proiektua onesten direnean (223,6 m2 berdegune eta espazio libretarako), berehala bere kargura izango dela, hirigintza-kargu gisa, tokiko sistemen estandarretarako lurak lagatzeko eta horiek urbanizatzeko betebeharraren lekualdaketa; halaber, urbanizatzeko ekarriko duen kostua adierazi beharko du, bere jabetzako erregistro-lursailean, Arespalditzako 2. sektoreko lursailei dagokiena. Gainera, ohartaraziko zaio ez zaiola lizentziarik emango konpromiso hori bete dutela frogatu arte.

Halaber, ohartaraziko zaio eraikitze-lanak UE-8a urbanizatzeko obrekin batera egitea erabaki duenez, eta bereziki aintzat hartuta tokiko zuzkidurak jartzera zuzendutako urbanizazioa (2. sektorera mugituko dira) atzeratu egingo dela, obra egiteko lizentzia eskuratzeko (hirigintza-kargen % 1eko eta % 7ko bermeak alde batera utzita) urbanizatzeko-lanen kopuru osoa bermatu beharko duela (gainerako % 92a), eta ez zaiola itzuliko 2. sektoreari dagokion zenbatekoa behin betiko urbanizatu dela frogatu arte.

Bosgarrena.- UJP, hitzarmena eta Arespalditzako UE-8 birpartzelatzeko proiektua behin betiko onetsi ondoren, Alday Ongintzako Fundazioari eskatzea sustatzen ari den Aiarako 2. sektoreko Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari dagozkion dokumentuak egokitzeko hartutako konpromisoetara: tokiko zuzkiduren lagapenaren hirigintza-kargak jakinaraztea eta 223,26 m2 horiek urbanizatzeko berdeguneekin eta espazio libreekin.

Halaber, Plan Orokorra idatzi duen taldeari (oraindik izapidetzen ari dena) jakinaraztea Arespalditzako 2. sektorean sartu dezan lekualdaketa hori.

Seigarrena.- ALHAOn argitaratzea hirigintzako ekintza-programaren elementu nagusiak jasotzen dituen iragarkia, eta Fundazioari eraikigarritasun-portzentajea lagatzen zaion erabakia ere argitaratzea. Halaber, hitzarmen osoa argitaratzea hirigintza-egikaritzeko, jabe bakar gisa, eta laugarren klausularen behin betiko testua gehitzea, aipatutako baldintzetan. Hori guztia jendaurrean ikusgai jartzeko, hoguei eguneko epean, interesdunek Udaleko bulegoetan espedienteak aztertu ditzaten eta alegazioak aurkeztu ditzaten.

Halaber, ALHAOn argitaratzea jabe bakarreko birpartzelatze-proiektuaren hasierako onepenen iragarkia, hoguei eguneko jendaurrean ikusgai jarrita.

Zazpigarrena.- Erabaki honen berri ematea Alday Ongintzako Fundazioari eta Arespalditzako Administrazio Batzarrari, eta jakinaraztea jendaurrean ikusgai jartzeko epe horretan aurkeztu ahalko dituztela alegazioak edo beharrezko dokumentuak.

Zortzigarrena.- Amurrioko Jabetza Erregistroari eskatzea 211. liburukian, 22. liburuan, 153. orrialdean, 1572 lursailean ohar bat idatzi dezala, Arespalditzako UE-8ko birpartzelatze-proiektuaren hasierako onepenen erabakia islatu dezan. Halaber, lursail horren titulartasunaren eta kargen ziurtagiria igortzeko eskatzea.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako 3 zenbakiko poligonoko 1333 lursail katastraleko erabilera publikoko Jarduketak Urbanizatzeko Proiektua.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udaltzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Martxoaren 9ko 176/2016 Foru Agindua. Horren bitartez Aiarako Udalarari ematen zaio, Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren Programaren kargura, diru-laguntza "Aiarako 3. poligonoko 1333 lursail katastralean erabilera publikoko jarduketak" obrarako.

IKUSI DA.- 2016ko maiatzaren 16an David Pinedo Ortega arkitekto jaunak aipatutako obren proiektua aurkeztu zuela.

IKUSI DA.- Udal-teknikariak 2016ko maiatzaren 26an proiektuaren onespeneraren alde igorritako txostena, hirigintzako eta irisgarritasuneko araudia betetzen duelako, baita indarrean dauden gainontzeko xedapen aplikagarriak ere.

Udalbatzak, gehiengo absolutuz, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea "Aiarako 3. poligonoko 1333 lursail katastralean erabilera publikoko jarduketak" obraren Exekuzio Proiektua.

Bigarrena.- Gutxienez hamabost urtez mantentzea aipatutako obren xedea, Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren Programaren kargura Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutakoak. Baita obra horien azpiegituren egoera ona bermatzea ere.

5.- Onestea, bidezkoa bada, "Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzeko obrak" proiektua.

Esteban jaunak (BILDU) aipatu du bere taldea abstenitu egingo dela; obraren alde daude, baina ez daude ados euren artean gainjartzen diren bi proiektu desberdin ordaintzearekin.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5-PNV + 2-AB)

Abstentzioak: 3-BILDU

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Martxoaren 9ko 176/2016 Foru Agindua, Aiarako Udalarari diru-laguntza ematen diona Arabako Foru Aldundiko Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura, "Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzea" obrarako.

IKUSI DA.- 2016ko maiatzaren 23an, Iván Manjón Borregón teknikariak Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzeko obren gauzatze-proiektua aurkeztu zuen (Aiarako 3. poligonoko 592 lursaila).

IKUSI DA.- Udal-teknikariaren aldeko txostena, hirigintzako eta irisgarritasunerako araudia betetzen duelako, baita indarrean dauden gainontzeko lege aplikagarriak ere, 2016ko maiatzaren 26koak.

Udalbatzak, gehiengo absolutuz, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea "Etxaurren Ikastola konpondu eta aldatzeko obrak" gauzatze-proiektua.

Bigarrena.- Gutxienez hamabost urtez mantentzea aipatutako obren xedea, Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren Programaren kargura Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutakoak. Baita obra horien azpiegituren egoera ona bermatzea ere.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren proposamena, Aiarako Kuadrillaren egoitza Aiaran mantentzeari buruzkoa.

Lauren jaunak (BILDU) aipatu du Kuadrillak irizpideak zehaztu behar dituela egoitza finkatzeko. Inprobisatzen ari gara.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio Kuadrillaren egoitza Aiaran finkatzeko erabakia hartu behar dela, eta eraikina eskura jartzea. Gero, zehaztuko da jabetza den ala solik erabilera lagatzen den.

Iraida andreak (AB) esan du bere taldea alde dagoela Kuadrillako egoitza Aiaran finkatzearekin eta horretarako lehengo udaletxea zegoen eraikina lagatzearekin.

Lauren jaunak ere esan du ados dagoela egoitza Aiaran mantentzearekin geografiagatik eta, batez ere, historiagatik; udaletxe zaharra lagatzearekin ere ados dago; izan ere, Aiarako egoitza historikoa izan zen gainontzeko udalerriek alde egin aurretik.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Kuadrillak egoitza berri baten beharra adierazi du, zerbitzu publikoak modu eraginkorrean emateko baldintzak betetzen dituen egoitza; izan ere, tokiko administrazio gisa hainbat zerbitzu publiko ematen ditu.

AINZAT HARTU DA.- Aiarako udal-mugaratean ez daude soilik arrazoi historikoak, geografikoak ere badaude. Aiara toki estrategiko batean dago Kuadrillako zerbitzuak modu eraginkorrean eskaintzeko; zerbitzu horietako asko hiru udal txikienei zuzenduta daude.

Udalbatzako kideek, aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek), honako hau **ERABAKI DUTE:**

Lehenengoa.- Aiarako Kuadrillari proposatzea erakundearen egoitza Aiarako mugartean finkatzea aipatutako arrazoiengatik; horretarako, eskura jarri du lehengo udaletxea zegoeneko eraikina, Arespalditzako La Iglesia auzoan dagoena. Eraikina modu egokian berritu ondoren, erakunde horren egoitza administratiboa izango litzateke.

Bigarrena.- Erabaki horren berri ematea Aiarako Kuadrillari, eta eskatzea egoitzaren tokia onartzeko eta finkatzeko, eta erabakia hartu eta igortzeko.

7.- Aiarako eraikin publikoen garbiketa-zerbitzuaren esleipena baliogabetzea, Urbegi Servicios Medioambientales SLU enpresaren alde, eta Comercial de Limpiezas Villar SA enpresa hautatzea Aiarako Udal Eraikinen Garbiketa Zerbitzuaren esleipendun gisa.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- 2015eko azaroaren 19ko osoko bilkuran, Aiarako Udaleko Eraikin Publikoak Garbitzeko zerbitzua prozedura irekiz kontratatzeko Baldintza Ekonomiko-Administratiboen eta Teknikoen Plegua onetsi zen.

IKUSI DA.- 2015eko azaroaren 28an, lizitazio-iragarkia argitaratu zen EBAOn, berrogei egun naturaleko epean interesdunek euren proposamenak egin zituzten.

IKUSI DA.- Lizitazioaren iragarkia 2015eko azaroaren 30eko 140 zenbakiko ALHAOn, kontratatzailearen profilean eta El Correo egunkarian (2015-11-27) argitaratu zela.

IKUSI DA.- Eskaintzak aurkezteko emandako epean bi proposamen aurkeztu zirela. Horrela jaso da dagokion espedientean.

IKUSI DA.- 2016ko urtarrilaren 25ean eratu zen Kontratazio Mahaia. Horrek, hiru gutun-azalak ireki, aztertu eta puntuatu ondoren, proposamena Urbegi Servicios Medioambientales SLU enpresaren alde egin zuen, esleipen-irizpide guztien artean puntu gehien lortzeagatik.

IKUSI DA.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak, eta Ingurumena Informazio Batzordeak 2016ko otsailaren 9an emandako aldeko irizpena.

IKUSI DA.- 2016ko otsailaren 18ko bilkuran hartuta erabakia. Bertan, Aiarako Eraikin Publikoak Garbitzeko Zerbitzuaren kontratista gisa Urbegi Servicios Medioambientales SLU enpresa hautatu zen, eskaintzarik onuragarriena aurkeztu zuelako.

IKUSI DA.- Hautatuko enpresak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu zuen, behin betiko bermea barne, eta bilkuraren eskuduntzaz, 2016ko martxoaren 16ko Alkatetza Dekretuaren bitartez Urbegi Servicios Medioambientales SLU enpresari esleitu zitzaion aipatutako kontratua.

IKUSI DA.- 2016ko maiatzaren 12an, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren Titularrak igorritako ebazpena jaso zen (data berekoa), eta, bertan, aipatutako kontratuaren esleipena eta espedientearen atzeraeragina baliogabetzen ziren, eskaintzen balorazioaren unean.

IKUSI DA.- 2016ko maiatzaren 24an Kontratazio Mahaia berriz bildu zen Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren ebazpena betetze aldera. Aurkeztutako eskaintzei puntuazio berria eman zitzaion, ebazpen horrek agintzen zuen bezala, eta berriz baloratu ziren honako irizpide hauek: “produktu jasangarriagoen hobekuntza” eta “preziosa, kalitatea eta jasangarritasuna produktuak hornitzerakoan”. Izan ere, Urbegi Servicios Medio Ambientales SLU enpresak esan zuen beraien puntuekin akats bat egon zela.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Kontratazio-mahaiak emandako amaierako puntuazioa honako hau izan da:

ENPRESA	C GUTUN-AZALA			B GUTUN-AZALA				Puntuak guztira C+ B
	Mahaiaren balorazioa	Ingurumen-teknikaria	C gutun-azala guztira	Prezioa	Hobekuntza	Aparteko orduak	B gutun-azala guztira	
Comercial de Limpiezas Villar SA.	17	11,18	28,18	30	15	9,33	54,33	82,51
Urbegi Servicios Medioambientales SLU.	17	9,48	26,48	28,87	15	10	53,87	80,35

AINTZAT HARTU DA.- Azaroaren 16ko 38/2011 LEDaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko Testu Bateratuan xedatutakoa.

AINTZAT HARTU DA.- Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22. artikuluan xedatutakoa.

Udalbatzako kideek, aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek), honako hau **ERABAKI DUTE:**

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren ebazpena betearaztea (2016ko maiatzaren 12koa), eta Aiarako Eraikin Publikoaren Garbiketa Zerbitzuaren esleipena (Urbegi Servicios Medio Ambientales SLU enpresari) baliogabetzea, 2016ko martxoaren 16ko Alkatetza Dekretuari jarraiki.

Bigarrena.- Espedientea atzera eraman ondoren eskaintzen balorazioen unean, kontratista gisa izendatzea COMERCIAL LIMPIEZAS VILLAR SA enpresa Aiarako Eraikin Publikoen Garbiketa Zerbitzurako, eskaintzarik onuragarriena aurkeztu zuelako, pleguan zehaztutako esleipen-irizpideak aintzat hartuta.

Hirugarrena.- Urbegi Servicios Medio Ambientales SLU enpresari itzultzea behin betiko bermea, 2016ko martxoaren 8an udal honetan jarri zuena kontratista gisa izendatutakoan.

Laugarrena.- Erabaki honen berri ematea hautatutako enpresari, eta eskatzea, hamar egun balioduneko epean (erabakia jasotzen den egunetik zenbatzen hasita), pleguen 13. artikuluan eskatzen diren dokumentuak aurkezteko.

Bosgarrena.- Erabaki honen berri ematea Urbegi Servicios Medio Ambientales SLU enpresari, horren berri izan dezan eta ondorio egokiak izan ditzan.

Seigarrena.- Dokumentazio guztia jaso eta positiboki kalifikatu ondoren, jaso den egunetik bost egun balioduneko epean, alkateak udalbatza honen eskuduntzaz eta 2015eko azaroaren 19ko erabakiaren arabera, kontratua esleituko du.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du bederatzia eta hogeirenean eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hogeita hamarrean.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.